

ANTON ABBADIAREN KOPLARIEN GUDUAK (1851-1897)

Kronika antzeko hurbiltze saioa

AURKEZPEN eta sarrera gisara emango ditudan ohar hauetan Anton ABBADIAk antolatu eta saritu koplarien guduak argitzen ahaleginduko naiz. Atari moduko honek, beraz, jadanik ezagunak diren zenbait albiste errepikatuko ditu, baina era berean beste zenbait ezezagun eta berri plazaratuko. Hainbat garai eta pasarte ilun edo itzalpean direnak agiri moldiztegitartugabeen bitartez argitzen saiatuko gara. Halaberetsu egingo dute, noski, euskal literatur ikerleek XIX. mendeko bigarren parteari buruzko lanetan eta uste dut denen artean urratsez-urrats hobeto ezagutzen joango garena gure herriko kulturaren historia eta literatura bereziki, atzeak erakutsiko digularik aurrea nola dantza.

Literatur jokoak aspaldikoak ditugu, gauza jakina da, eta batipat hitza bitarteko poesia lortzen saiatzen direnak. Jadanik Erdi Aroan, Frantziako Tolosan eta 1323. urtean zehazki, Okzitaniako eremuetan antolatzen hasi zen tolosar burges talde bat *Consistori de la Gaya Sciència* delakoa, eta trobadoreen hizkuntzan probentzerazko bertso deialdia egin zuen. Lehen saria - *violeta de l'aur*-, urrezko bioleta bat Ama Birjinari buruz Arnaut Vidal de Castelnou d'Ari-k idatzitako sirbentes bati eman zitzaion 1324ko maiatzaren 3an. Tolosako poesia norlehenka honek ehun eta hirurogei urtez iraun zuen bere araudi bereziaz¹.

Bertso molde baten menpekotasuna, gaien urria (ia denak erlijiozkoak, kontutan hartu behar da garaiko Inkisizioak herejeekiko zeukan arreta eta eraso etengabea), eta batez ere ikuspegiaren mugatzea dira eskola honek zituen "akatsik" nagusienak Riquer irakaslearen ustez, zeren eta ez baitzien utzi katalandar idazleei une hartan Mediterraneoako kostetan eta batipat Italian Errenazimendu urratzean sortzen ari ziren berrikuntza miresgarriez ohartzea.

XIV-XVI. mendeetan zehar ez soilik Frantziako hegoaldean, Pirineo mendikatetik honantz Katalunia, Valentzia, eta Irletan ugariak izan ziren literatur jokaldiak, bertan poeta askoren artean nafar batek gutxienez, Frantzisko de Amezkua izenekoak, parte hartu zuelarik. Eta hasiera batean bertsoetakoak baziren soilik, saildu, Ama Birjina eta Besta berri-Corpus Christi-aren omenez eta laudorioz antolatutakoak, 1487an jada Ama Birjinaren Garbikundeaz prosazko nor-gehiagoka moldatu zuen Ferrando Dieç batek².

Gaztelan Enrique de Villenak sortu zituen. Honek XV. mendeko lehen partean *Arte de trovar* delako bat idatzi zuen, Santillanako Markesari bidali ziona irakats zitzan gaztelaniatzko

1. Martin de Riquer, "L'escuela poética de Tolosa", *Història de la Literatura Catalana*, I, Ariel, Barcelona, 1964, 521.

2. Martin de Riquer, "Literatura de certàmens", *Historia de la Literatura Catalana*, III, Ariel, Barcelona, 1964, 365-381.

poetak trobadoreen antzean. Eta Urrezkoak bezala deitu mendeetan ez zen Espainiako hiri nagusietan Poesia lehiaketarik falta, batez ere sailduren baten omenetan antolatutak.

Nafarroan, hain zuzen, XVII. mende hasieran Iruñeako apezpikuak, Antonio Venegas de Figueroa jaun agurgarriak ere Aldareko Gorputz Sainduaren omenezko koplak lehiaketa antolatu zuen, 1609 eta 1610ean, honelakoxe hitzak zekarzkielarik deiak:

Y porque celebrandose en este Reyno de Navarra la solemnidad de esta fiesta, no es razon que la lengua matriz del Reyno quede desfavorecida, se pide en este certamen un romance de doze coplas en Bascuence, que lleve un estribillo de tres a tres coplas. Y al que mejor lo hiziere se le darán tres baras de tafetan. Y al segundo, dos de Olanda. Al tercero, tres pares de guantes blancos³.

Irabazleak Pedro de Ezcurra, Miguel de Aldaz, eta Joan de Elicalde izan ziren lehen urtean eta bigarreanean Martin Portal. Eta jakin, badakigu gainera Iruñeako Eliz Barrutiko Artxioboari esker, ez Aldazek⁴, ez Elizalde⁵ ez eta Portalek⁶ ez zutela eraman bitzta oso zuzen eta zintzorik.

Halaber Bartzelonako hirian 1656. urtean antolatu zenean poesia lehiaketa bat Ama Birjinaren Garbikundearen omenez, Santa María del Mar Elizan, beste poema zenbaitekin batera Frantzisko Bustamante izeneko militar poeta batek erromantze bat euskeraz aurkeztu zuen, zeinen lehen bertsoleroak hemen emango ditugun, euskal literatur historiek aipatzen ez dutenez, eta zeinek honela dioten:

*Audi beza sugeak
Suge bat nai diot eman
Muskerra ere izandu bazen
Gizonaren kontra baratzean⁷.*

Ilustrazioaren garaian, 1765an, Peñafloidako kondeak sortu Bergarako Mintegian, Marzelino Menéndez Pelayorentzat "la primera escuela laica de España" zen hartan erlijioa, matematika, fisika, kimika, mineralogia, marrazkigintza, musika, dantza, eta esgrimaz aparte, hizkuntzak ere irakasten ziren, hala nola latina, frantsesa, gaztelania eta euskera. Mintegiko IX. artikulua zioen, hizkuntza kontutan nazionalekin hasi behar zela, zeinak euskara eta gaztelania ziren⁸. Hori dela eta antolatu egiten zituzten ikasturte bukaeran literatur lehiaketa zenbait, zeinetan parte hartu zuen euskaraz beste ikasleen artean kondearen semeak berak, Ramonek⁹.

Hizkuntzari buruzko lanak saritzeko Volney konteak (1757-1820) sortu zituen Parisen lehiaketa batzuk, eta badakigu Anton Abbadiaren aitak, Michelek, ahaleginak eta bi egin

3. Luis Michelena, *Textos arcaicos vascos*. Ed. Minotauro, Madrid, 1964, 111-122.

4. 1605 Errazquin contra Miguel de Aldaz, cazador, mujeriego, jugador...: Sección Garro c/ 429, nº 24, 55 fols.

5. 1624. Ataun contra Juan de Elizalde, presbítero inmoral. Secretario, Mazo, c. 501, nº 13, 61 fols.

6. Pamplona, 1622, contra el licenciado Portal "coz-vicario", Secretario Treviño, C. 292, nº 18, 153 fols.

7. Francisco Modolell y Costa, *Iusta poética consagrada a las festivas glorias de Maria en su Inmaculada Concepcion, mantenida en la Parroquial Iglesia de Santa Maria del Mar de la Ciudad de Barcelona. Relacion de las suntuosas fiestas que esta ilustre Parroquia hizo en honrosas memorias de tan soberano misterio*. Barcelona, Narcis Casas, 1656, 109-110.

8. Julio de Urquijo, "Menéndez Pelayo y los Caballeritos de Azcoitia", *RIEV*, T. XXVII, 308.

9. Xabier Altzibar, "Euskara Adiskideen Biltzarrean", *Symbolae L. Mitxelena Oblatae*, Vitoria, 1985, 1119-1135.

zituela euskararen gainean Darrigolek burutu lanak sarituak gerta zitezen, P. Haristoyk bildutako 1815-1828ko gutunek argi eta xeheki adierazten diguten bezala¹⁰.

XIX. mendean sarturik eta Kataluniarekin jarraituz, Antònia Tayadellak oroitarazten digun bezala, 1841. urtean Joaquim Rubió i Ors idazleak bere *Lo Gayter de Llobregat* poema liburuan Lore Jokoen pizkundearen alde honelaxe mintzo zitzaigun:

Catalunya pot aspirar encara á la independència, no á la política [...], pero si á la lliteraria [...] Catalunya fou per espay de dos seggles la mestra en lletras dels demás pobles: ¿perque puix no pot deixar de fer lo humillant paper de deixeble ó imitadora, creantse una lliteratura propia [...]? ¿Per que no pot restablir sos jochs florals y sa academia del gay saber y tornar á sorprendre al món ab sas tensons, sos cants de amor, sos sirventeses y sas aubadas?¹¹

Eta oihu honen oihartzun eta erantzun gisara sortu zen talde bat, –Joaquim Rubio i Ors, Joan Cortada, Victor Balaguer, Antoni Bofarull eta Manuel Mila i Fontanals besteen artean–, antolatu zituenak Barzelonako *Els Jocs Florals* deituak. Urte batzuek geroxeago, 1861an, A Coruñan José Pascual López Cortón Puerto Rico-n aberastu zen indianoak mezenas modura jokatuz antolatu zituen *Xogos Florales de Galizia* izendatuak, baina ez zutenak iraupenik izan¹².

Gurean, Euskal Herrian, ordea, Erromantizismoak eragin mugimendu hau, beste kasutan ez bezala, aitzinatua zen. Alde batetik ohizko ziren bertsolarien arteko nor-gehiagokak, Agosti Chahok 1844an *Trilby*, Baionako aldizkari batean euskal kantez plazaratu agiri eder batean zioen bezala:

*...Qui de nous n'a admiré quelquefois ces luttes poétiques où les chanteurs montagnards, le verre à la main, font assaut d'esprit, souvent pendant des nuits entières [...] et les productions de la Muse nationale, après être restées gravées quelque temps dans des mémoires privilégiées, se perdent sans retour au bout d'un petit nombre de générations. C'est pour dérober à ce grand naufrage ce qui nous reste encore de nos chants nationaux et de notre mélodie primitive que nous avons résolu de hasarder cette publication, malgré des difficultés de plus d'un genre. Les textes recueillis de longue main et soigneusement épurés seront accompagnés de leurs timbres notés...*¹³

Tamalez desio hura lehen urratsetan baratu zen, gazterik hil baitzitzaigun Chaho, eta bere *Chants populaires de la Navarre et des Provinces Basques* bilduma aberats hura osorik plazaratu gabe gelditu baitzen, eta hala dirau oraindik egun euskaldunon lotsarako, gure zabarkeria eta axolagabekeria salatuz.

Euskal kanten biltzea¹⁴ eta literatura piztearen ideia, ordea, bizirik zegoen eta arlo honetan XIX. mendean pausurik handienetakoa emango zuena Anton Abbadia izan zen. Honen

10. P. Haristoy, "Lettres à M. L'abbé Darrigol (1815-1828)", *Revue d'Etudes Religieuses de Bayonne*, Pau, 1896: 529-533, 578-582; 1897: 83-85, 97-103, 145-149.

11. Antònia Tayadella, "La Renaixença: els certàmens literaris", *Jornadas de Lengua y Literatura catalana, gallega y vasca*, II. (Ed. P. Urquiza, et al.). UNED, Madrid, 1992, 51.

12. Manuel Rodríguez Alonso, "Los juegos florales en la literatura gallega", *Jornadas ... aip. lib.*, 59-62.

13. Patri Urkizu, *Agosti Chahoren bizitza eta idazlanak, 1811-1858*. BBK-Euskaltzaindia, Bilbao, 1992, 58.

14. Patri Urkizu, *Bertso zahar eta berri zenbaiten bilduma (1798)*. Durango, 1986.

bizitzaren eta obraren berri zehatza nahi duenak irakur ditzake *Recueil de textes...*¹⁵ titulupean liburu honekin batera argitaratu ditugun hainbat eta hainbat lan.

Etiopiatik itzulitakoan, Abbadia *Chevalier de la Legion d'Honneur* izendatu zuen Gobernuak "pour les services qu'il avait rendus à la science géographique et au Commerce par ses voyages en Abyssinie". Alegia, Errepublikari eta bereziki komertzioari eta geografia zientziari egin zerbitzuen ordain ohorezko medaila eman zion Presidenteak dekretuz, 1850. irailaren 27an¹⁶.

Eta hurrengo urtean, 1851an, hain zuzen, hasi zitzaigun euskaldunen artean bere poltsikotik ordaindutako sariak banatzen. Gure bildumaren lehen poemari hain zuzen, *Kantu berriak Urruñeko pilota partidaren sujeten gainean* titulua daramaten eta Gaskoinaren airean kantatu ziren koplei. Joanes Oxaldek idatziak zituen, berak aitortzen dion bezala lau urte geroago Abbadiari:

*M. Dabadie jauna, othoi, barkha zadazu hartzen dudan ausartzia nola zure lehenbiziko primako kantak nik emanak ziren, zuk eta auziarleek lagundu ninduzuen heien inprimarazteko premisionearen ardiesten eta orai ere zure ganat heldu niz haur prodigoa bere aitaren ganat bezala. Hamar haurren burhaso kausitzen niz eta bizia kario...*¹⁷

Kantu horretan, noski, pilota partidaren berri ematen da, nola mila libera banatu zituen pilotarien artean, frogatzen duenak Abbadiak pilota jokoa biziki eta beste joko guztien gainetik maite zuela¹⁸, baina baita ere pilota bezalaxe kantak, zeren eta era berean Abbadiari laudorioak honela emango dizkio Oxaldek:

*Mussiu d'Abbadiek egin du fagore,
Haren present ederrez kontent naiz ni ere. (1-IX)*

Abbadiaren Lore-jokoak aipatzen direnean ohikoa da 1853. urtearekin hastea, guk, ordea, 1851 ezarri dugu, berak bere paperetan sarien zerrenda egiten duenean urte hortatik beretik hasten delako, fotokopian eman dugun bezala: *Lieux où j'ai donné mes prix basques: 1851 Urrugne : début*¹⁹. Eta beste paper batzuetan ere horrelaxe dio bildu zizkionak paperak: *Voici le résultat de mes recherches: de 1851 à 1898 il y a 48 années...* Hona bada, ene ikerketen emaitza, berrogeita zortzi urtetan barrena 1851etik 1898ra.

Koplarien guduak, Bildumari ezarri diogun izenaz adierazi behar dugu, euskaraz topatu dugun lehenetarikoa²⁰ horixe dela, eta Intxauspe kalonjeak sortutakoa dela, Abbadiari 1860an idatzi gutun batean agertzen den bezala. Hala nola *garhait-saria* eta *aiphamen ona*²¹. Geroago beste batzuek ere erabili izan ziren arren, hala nola, *Bertsutako gudua*

15. Antoine D'Abbadie (1810-1897), *Recueil de textes ethnographiques, géodésiques, linguistiques et littéraires*. Edition de Patri Urkizu avec la collaboration de Idoia Estornes et Fermin Arkotxa. Eusko Ikaskuntza & Euskaltzaindia. Donostia, 1997.

16. J. Dumas, "Rapport à M. le President de la République". *Le Moniteur Universelle, Journal Officiel de la République Française*, 2 octobre 1850, n° 275.

17. Bibliothèque Nationale de Paris, nouvelles acquisitions françaises (Aurrerantzean: BNP. naf) n° 21746, 1855-XI-19.

18. Jean Haritschelhar, "1851, Urrugne 1961, Contribution à l'histoire de la Pelote", *Gure Herria*, Bayonne, 193-205.

19. BNP. Fonds Celts et Basques (Aurrerantzean: FCB), n° 164, f.1

20. 1853ko iragarkiak "pherxuetaco gudua" aipatzen du.

21. BNP, naf, n° 21747, f.220

(1869), *Neurtizlarien gudua* (1879), *Joko loretuak* (1880), *Bertsularien gudua* (1887), *Eskribitzaileen indar-neurtzea* (1891), *Neurtitz gudua* (1896) ... eta frantsesez beti berdin: *Concours de Poésie Basque...*

Jakina den bezala Charles Louis Napoleon Bonapartek 1851eko abenduaren 2an estatu kolpea jo zuen Parlamentuan, eta handik urte batera bere burua Enperadore gisa ezarri. Halaber errepublikazale ezkertiarren eta sutsuenak Frantziatik igorri zituen desterrura, hala nola Victor Hugo eta Baionan gazetari bezala aritzen ziren Capo de Feuillede, *L'Eclairneur*-eko zuzendaria eta Agosti Chaho *Ariel*-ekoa. Urte nahasiak eta gogorrak izan ziren haiek eta ez zaigu egoeraz mintzo ziren bertsorik falta. Adibidez, Urruñako Martin Halsouet "Ttipi" deituak²², 1852ko eleazioetan Chahoren aldeko bertsoak moldatu bazituen, Napoleonen aldekoak ere prestatu zituen, Joanes Oxaldek bezalaxe. Iraileko festetan, 20an hain zuen, gazte batek Abbadiaren laudorioak kantatu zituen modu honetan:

*Zaitugunean ikhusten
Guk gapeluarekin,
Gorphutza ere birundatzen
Gerriko zetarekin
Oinetakotzat hartuak
Gure ezpartinetarik,
Badiogu: oh! mutilak,
Jaun hau duk guretarik. (5-V)*

Eta urriaren 3an Anvers-en soldado eta desertore izan zen Ttipi honelaxe mintzo zen:

*Mila zortzi ehun eta berrogoita hamabian
Prima eman daukugu bigarren aldian. (4-VI)*

Abbadia gustora gelditu zen Urruñako herrian zeukan harrerarekin eta bai koplariari, bai eta entzuten zegoen jendeari adierazi zien horrelako maitasun frogak bozkarioz betetzen zutela, eta hurrengo urtean euskal poesiaren sari bat antolatuko zuela, bertan Zazpi Euskal Herrietako koplari guztiek parte hartzeko aukera izango zutelarik²³.

1853ko lehiaketaren antolamendua zehatza izan zen eta hurrengo urteetako eredugarria. Deia eta parte hartzeko baldintzak zehaztu ziren eta alde aurretik Baionako *Le Messenger*-ean eta Pabeko *Le Mémorial des Pyrénées* gazetetan publikatu ziren²⁴. Makhila eta urrezko ontza eskainiko zitzairen, lehen eta bigarren sari gisara, *Montevideora dihoan euskal gaztearen bihotz-minak* bertsotan egokien moldatuko zituztenei. Bertso kopurua mugatua zen, berrogei ta hamar bertsolerro gehienez ukan behar zituzten koplek, abesbatz batek kantatu beharko baitzuen eta jakina den bezala oroimenaren ahalmena laburra da. Eta zioten, saiatuko zirela kantariak poetak agindu airean kantatzen. Auzi-hartzaileetarik batek, Urruñako auzapezak, Larralde-Diusteguy jaunak, hain zuzen, herriko koruari kantaraziko zion bertako plazan, deialdian beraxek zioenez:

*Pilota partida baino lehen, iñanen da goraki eçagut aracia pherxuetako guduan
garaia eraman duena, eta harc egin pherxuak iñanen dire cantatuak herrico guiçon
gazte hortaraco berechi eta irakhaxiez, çoinekin aldizcatuco baita musicari gorphutz*

22. Piarres Andiazabal, "Nor zen Ttipi Urruñarra", *Euskera*, Bilbo, 1992, 65-77.

23. *Le Messenger de Bayonne*, (Aurrerantzean: MB) 1852-IX-30.

24. MB, nº 296, 1853-VI- 9; *Le Mémorial des Pyrénées*, nº 70, 1853-VI-11.

bat: eta ondoan, pherxuetan garaitu duenari emanen çaiçco, Antonio d'ABBADIE jaunaren partezko untçaco urrea eta ohorezco makhila.

Eguiña Urruñaco herrico etchian, Agorrilaren 29an, 1853an.

Baldarapheza, A. de LARRALDE-DIUSTEGUI.

Bertsok, posta ordaindu gabe Baionako Seminarioko Zuzendaria zen Harriet apezari bidali behar zitzaizkion, beranduenik abuztuaren 14erako. Ez zen kantarik batere saihestuko, eta epaileek gogoeten meritua bakarrik izango zuten kontutan eta nola hauek moldaturik zeuden²⁵.

Maurice Harrietek abuztuaren 20an eta 23an Abbadiari idatzitako bi gutunetan²⁶ lehiaketaren martxaren berri ematen dio, esanez, nola banatu dituen paketetan eta auzilarien artean zabaldu. Hauek, Ducos, Leremboure, Larralde, Hiribarren, Lissardy, Dayanne eta Goyetche jaunak ziren. Eransten dio, gainera, denentzat erdigune edo lekuri proposena izan daitekeenean bildu beharko luketela erabakia hartzeko.

Pilota partiduez arduratzen den B. Bascary jaunak beste gutun batean²⁷ ematen zizkion pilotarien izenak: Sebastian, Bizente, Gaskoina, Pascot... Eta euskaraz ematen zizkion joko arauak, honako hauek zirenak garai hartan:

1º Lurretik arrafera eskularruz bizi bota eskuhuts, lau onzako pilota finarekin.

2º Pilotak izanen diren Frantzian usatzen diren pilotarik, erran nahi baita, goma gabiak.

3º Arraferan denak pilota baratzen badu barnian izanen den kintzia galdua arraferan denarentzat eta ez arraia eskasian.

4º Arrabotaren gainetik kanporat pasatzen den pilota izanen den kintze galdua pilota jotzen duenarentzat.

Gaskoina jouera la partie le 6 septembre...

XIX. mendeko pilotaren historiaz gauza franko ikas daitezke Abbadiaren jokoei jarraikiz, eta bada lan mardul bat egiteko adina agiriirik, baina lan hori beste idazle pilotazale batentzat uzten dugu eta guk ez ditugu hemen kontutan hartuko, poesiara hertsitu eta mugatuko baikara.

Le Messenger gazetak 1853ko irailaren 13an *Variétés* sailean, Urruñako poesia lehiaketaren berri ematen zuen epai mahaiaren erabakiaz. Nola erakunde honen helburua, alegia, "concours de poésie nationale" delakoarena bikoitza zen. Bat literaturari eta moralari zegokion beste. Nola aurkezturiko kantak euskalki guztietakoak izan ziren eta nola nabari zen giza talde orotarikoak zirela ere, jende eskolatuak eta eskolagabeak parte hartu baitzuen, emakume bat ere heien artean bazelarik. Hogeita hamazazpi lan eta hoietarik irabazlea Bernard Celhaberena, *Entzunik espantutan Indien Berria* (6) izenpean eman duguna eta *Atharratze jauregian...* aire ezagutuaren arabera kantatu zena.

Ez ziren kontent gelditu parte hartzailerik erabakiarekin, noski, eta Pierre Topet-Etxahunek, adibidez, honelako bertsoak idatzi zituen irabazle eta auzilarien kontra:

25. BNP, naf, nº 21746, f.164-165.

26. BNP, naf, nº 21747, f.481-484.

27. BNP, naf, nº 21746, f.373.

*Celhabe Bardozeko, aphez arnegata,
Aphezek gure koblak zuri eman eta
Jarri izan zira koblarien aita*²⁸.

Hogeita hamazazpi horietarik gehienak galdu egin dira, tamalez, baina guk zazpi lortu ahal izan dugu (6- 12). Hauetatik berriki emana du Ttipirena Piarres Andiazabalek²⁹, baina ez osoki, eta Jean Satraliren bertsoak Montebideon 1855ean eginak izan arren, gaia dela eta loturagatik bertan eman ditugu.

Jean-Martin Hiribarren (1810-1866) apezak bertso ugari sortu eta plazaratu zituen, horien artean *Iruñeako Bestak* poema luzea (1248 bertsoerako) Chahok zuzentzen zuen *Arie*³⁰ aldizkarian argitaratua 1845. urtean, eta 1853an berean *Eskaldunac*³¹ eta *Montebideoco Berriac*³². Azken liburutto honen harpidedunen artean Abbadia zegoen, eta honela hasten zen:

*Zoratu ahal dire Eskaldun gazteak,
Utziz bere herritan buraso maiteak;
Itsasoz urruntzeko diru nahiz bildu:
Eskaldun izateak oraitik egin du!*

Gai honi buruz asko idatzi da eta etorkiaren gaitzari buruzko irizpide ezberdinak (pobrezia, errorik eza, deserzioa, abenturazaletasuna, engainioa...) ikertzen eta biltzen dituen saio-toxa ere argitaratu dudanez hara bidaltzen dut irakurlea³³.

Ikusi dugunez 1853ko irabazle irten zen Bernard Celhabe hurrengo urtean izandako makila kolpeez kekatuko zaio Landerretche garaztarrak moldatu bertsoen leloaren gainean Abbadia, eta honek galdetzen Goyetcheri ea *Message*-ean plazaratzeko modukoak diren. Erantzuna baiezkoa da eta aldizkari hartan plazaratu beste hainbat eta hainbaten kalitatekoa gutxienez. Hona IX. bertsoa:

*Ene anaiak, so eni,
Ez izan bertsulari,
Kopletan ez dukezie
Ospe ez irabazi.
Nik galdu dizit makila.
Ene bihotza, nola
Nola daite khuntsola?*³⁴.

28. Jean Haritschelhar, *L'oeuvre poétique de Pierre Topet-Etchahun (Texte-Traduction-Variantes-Notes)*, Euskera, Bilbo, 1970, 460.

29. Piarres Andiazabal, "Nor zen Tipi Urruñarra", *Euskera*, Bilbo, 1992-1, 65-77.

30. *Ariel*, Bayonne, 1845, n° 53-57, 59-61, urriaren 5, 12, 19, 26 eta azaroaren 2, 16, 23, 40an.

31. *Eskaldunac, Iberia, Cantabria, Eskal-herriac, Eskal-herri bakhotchka eta hari darraicona*. Baiona, Foré et Lasserre, 1853.

32. *Montebideoko berriac*. Bayonne. Foré et Lasserre, 1853. Edizio berria: Patri Urkizu, *Lapurdi Baxanabarre et Zuberoako Bertso eta Kantak, II, 1545-1900*; Etor, Donostia, 1991, 543-584.

33. Patri Urkizu, "Ameriketara joan nintzen xentimorik gabe...", *Exiliatuok ez gara inongoak*, Gasteiz, Arabako Diputazioa, 1994, 31-57.

34. BNP, FCB, n° 164, f. 23

1854ean gaia Laborantzaren gaineko laudorioak, edo, "Eloge de l'agriculture et de la vie de champs" izan zen. Dussaut bardoztarra, Martin Arrupe urruñarra, eta Bernard Borda bas-tidarra izan ziren parte hartzaileak bederen, ezen dakigunez hamaika bertso ezberdin aurkeztuak izan ziren. Dussaut irten zen irabazle, baina garaiko kronikagileak zioenez, *M. Borda de Labastide de Clairance a fait un véritable tour de force en inventant des hexamètres basques*, alegia, Bordak latinaren arabera sortu zituela euskal hexametroak, izugarriko lanaren ondoren, zein Piarres Lafittek ikertu eta plazaratu zituen, lehen aldiz³⁵. *Nere xaramelari* eskainitako lehen lau bertsoleroak halaxe dira:

*Nere xaramelari jadanik zuk, andre pulita,
Lehen erakatsi zenbait kantore diozu,
Noiz-ta artzain baten auhenak, edo noiz-ta laburzki
Usa samur baten intzirak, lan ezitia bilduz.*

Gai horri buruz ere oraindik argitaragabe diren milaka bertsolero idatzi zituen Jean-Martin Hiribarren apezak³⁶.

1854ean aurkeztu koplez badugu txosten ezberdinik: bat Jean Duvoisinena³⁷, bestea Agosti Chahorena³⁸ eta Abbadiari Hiribarrenek³⁹ gutun batean zuzendutakoa hirugarrena.

Duvoisinek zioenez, Atharratzeko Barneix-ek, Laurent Haramboure, Arnaud Haramboure eta Meave Ziburukoak bidalitakoez ez zuen merezi hitzegitea ere, eta kanturik hoberena, edo hobeto esatearren "la moins mauvaise", txarrenetarik hoberena Dussautek idatzitakoa omen. Bordak euskara latinaren prosodiara uztartu nahi izan zuela, euskal hexametroak onduz, eta lanik hoberena Larrungo hamahiru ahotsek kantatua zela, baina:

Il a laissé courir sa plume comme une folle cavale au travers des champs sans s'inquiéter des chûtes ni des culbutes; la cavale a quelquefois couru avec grâce, quelquefois elle a bondi prodigieusement et s'est donnée des aires de Persée.

Quittant les métaphores nous conseillons à l'auteur de concentrer mieux sa pensée, d'observer les préceptes et de ne pas faire trop vite.

Hiribarrenen kanta hau luzeegia eta azkarregi burutua aurkitu zuen Duvoisinek eta Dussauten poema hobetsia izan zen. Ez zitzaion, ordea, laket izan Hiribarreni erabakia eta Abbadiari zuzendu zion gutunean esaten dio, nola epai-mahaiko batek soilik aurkeztu zuen koroatzeko zen kanta, nola inork ezer esan ez eta egiteke zegoen beste bat koroatua gertatu zen, ezen Dussautena bazen hoberena zegoen zegoenean utzia behar zuen izan. Eta nola bere eliz-barrutikoek zorionak eman dizkieten bere loretxoekin bigarren aldiz sariturik izan den beste barrutiar bat. Halaber, saridunen babesleak ez duela belarririk, eta ez dakiela zer den ere poesia.....

Betiko ohizko eztabaidak auzihartzaileen artean.

35. Piarres Lafitte, "Les hexamètres de B. Borda (1854)", *Fontes Linguae Vasconum*, Iruñea, 1978, 493-523.

36. Lehenik Piarres Lafittek gorde zituenak eta orain Pierre Andiazabalek zaintzen dituenak Baionako Seminarioan.

37. BNP, naf., n° 21747, f. 20-23.

38. BNP, FCB, n° 164, f.17 ss.

39. BNP, naf., n° 21747, f. 504-505.

Hau dela eta 1855eko urriaren 27an Goyetche, Urruñako apezak, osasuna dela eta buru lanik ez zaiola komeni aitzakiaz, eta epaia kontzientziaz emateko gai ez delako sentitzen, epai mahaitik kanpo gelditzea erabakitzen du.

Duvoisinek Abbadiari zuzendu gutunean⁴⁰, dio, Goyhetchek epai-mahaiko izateari uko egitea Dorbe izenpean zinatzen duelako izan litekeela, eta argi dagoela, iturri onetik jakin baitu, Léon Dajas eta Laurent Daguerre izenpean iritsitako bertsoak Hiribarrenenak direla⁴¹. Makina bertso-koademoren jabea dela Bardozeke apeza, baina lan edo bederen berrikustearen faltan daudela, *manque de travail ou au moins de révision*.

Gaia emazte edalea zen, eta irabazlea Leon Elissamburu gertatu zen. Leon Ortaizen jaioa 1816an, guarda, pelotari eta olerkari Jean Haritschelharren hitzetan⁴², XIX. mendeko idazle hoberentsuenetarikoen, Jean-Baptisterena anaia, gutxienez zazpi kanturen egilea, eta 1855eko irabazlea, *Saratarra naizela orok badakite* airean kantatu ziren zortzi bertsoekin, 1861ean hilen da .

Duvoisinek eman zion ohi bezala Abbadiari aurkeztu koplak berri xehe eta zehatza⁴³, hala nola bere iritzi zorrotzak bakoitzari buruz, le *Messenger*-en agertu zena⁴⁴. L. Elissambururi buruz zioen, bertso erraz eta zuzena zuela, molde onekoa eta hizkuntzaren kultura, *une versification facile et correcte, une facture qui sent la bonne manière et une certaine culture de la langue*.

Koplarien bertsoek gai jakina izan zuten bezala, bapateko bertsolariak gai librean aritu ziren urte horretan. Eta 1855eko azaroaren 19koa dugu Jean Oxaldek Abbadiari zuzendutako gutun benetan hunkigarria, bertan ikusten baita zein egoera behartsuan bizi ziren zenbait koplari. Hona hemen dioena:

... Hamar haurren burhaso kausitzen niz eta bizia kario. Ez dut erresurtzarik nere apointamendua beizik eta prima horren berririk ez dut jakin gan den igandean grefierak publikatu artino eta orai ere ez dakit zertaz den sujeta kanten emateko. Jakin banu entseatuko nintzan gisa hartarat. Huna konposatu tut hogoi persu presaka esperantzan zuk othoi ungi hartuko dautazula, zeren zure karitatea gisa hortakoa delakotz eta esperantza dut impresione handi bat eginen dutela jenden artean baldin deliberatzen baduzu edo pena hartzen hoi en imprimatzeko. Neronek ez dut moienik inprimarari pagatzeko eta nola nik egin banintza jendek phentsa lezakete nik gezurrez eginak direla eta hainitz nezesari direla iduritzen zaut zonbeit arimen beiratzeko alde hotan.

Beraz finitzen dut. Zure borondate onari begira gelditzen naiz. Ez dut aski goizik jakin premisionearen galdatzeko horrat ethortzeko. Baldin izaiten baduzu nezesarioki sujetik zure zerbitzuko naiz ene bizi guzian eta desiratzen dautzut bizitza luze bat jainkoari konbeni bazaio osasun on batekin.

Jean Oxalde, preposé des douannes, le 19 Novembre 1855. A Mendionde⁴⁵.

40. BNP, FCB, n° 164, f. 47, 1855-VIII-30.

41. BNP, naf., n° 21747, f. 111.

42. Jean Haritschelhar, "Léon Elissamburu, guarda, pilotari, olerkari", *Euskera*, 1992-1, Bilbo, 31-43.

43. BNP, FCB, MS n° 164, f. 47-49

44. *MB*, 1855-XII-6.

45. BNP, FCB, n° 164, f. 46-47.

Ez zuen ukan, ordea, arrakasta handirik Oxalderen eskaerak eta 1868a arte ez du irabaziko lehen saririk, interesgarria da, dena den, bere bizitzaz Oxobik moldatu liburuttoa⁴⁶.

Herriko besta izan zen 1856ko gaia, aldez aurretik behar bezala iragarria Baionako *Le Messenger*-en (1856-IV-15) eta epai-mahaikoen eztabaiden ondoren Jean Baptiste Larralde gertatu zen lehen sariaren irabazlea. Lissardyrentzat⁴⁷, ordea, Leon Dajas-ek zinatua, beraz, Hiribarrenena zen hoberena. Baina berriro Duvoisinin iritzia⁴⁸ atera zen gailen, zeren bere ustez Larralde medikuaren bertsoak besteenetarik gorago zeuden inongo ezpairik gabe.

Londresetik 1856ko urriaren 20an Luis Luziano Bonaparte printzeak Abbadiari igorri gutunean euskerazko hitz batzuek bidaltzen dizkio Urruñako bestan bildu ziren euskaldunei zuzenduak. Honakoak, hain zuzen:

Euskaldun maiteak!

Lenago maite zituztean, bano orain ezagutu ezkeru maiteago zaituztet. Gaur urte-bete Euskererrian izan nai dedila!

*Ondo bizi zaitetze, nere adiskideak.*⁴⁹

Ez zen izan aukera haundirik, ordea, konparaturik aurreko urtearekin 1857an, ezen bi poema bakarrik aurkeztuak izan ziren, eta antza, biak egile berarenak, bata, *Eskaldun baten auhenak*⁵⁰, Louis Ithurbide irabazlearena, eta bestea *Zure begiek egun zer duten*, Donostiako hirur damatxo-ren airean kantatzeko egina, Bethiri Seilharuxena⁵¹.

1857a, dena den, aipagarria da urte honetan Parisen eta Berlinen bi obra eder euskaldunez eta euskal poesiaz argitaratu zutelako Francisque Michelek⁵² eta Charles August Friedrich Mahn-ek⁵³, mundu zabalera agertuz euskaldunen ohiturak, historia, musika, hizkuntza, literatura etabar.

Benetan interesgarriak gertatzen dira ere epaileen arteko gutunak. Horrela Inchauspe kalonjeak⁵⁴ Duvoisin kapitainari 1858ko irailaren 2an idatzitakoan nabari da iristen zitzaizkien bertsuetan esku sartzeko jaidura hobetu beharrez edo, honek ez omen zuen eta idazlanen

46. Oxobi, *Oxalde 1814-1897*. Eskualzaleen Biltzarrak ager-erazia. Baiona, data gabe. Merezki luke, dena den, osatzea hemengo bertso bilduma, bertan ageri ez diren beste zenbaitekin.

47. "Hasparren, 26 août 1856", lettre à Antoine d'Abbadie: BNP., naf., n° 2147, f. 83.

48. "Fils d'un de nos meilleurs chansonniers basques (Bordachuri, de Hasparren), M. Larralde [...] a envoyé au concours une pièce de vers, qui, je l'espère, réunira tous les suffrages. D'après moi, ce morceau laisse tous les autres assez loin derrière lui [...] Ce chant exale un parfum poétique..." (1856-VIII-19; BNP, naf., 21747, 232.)

49. Londres, 8 Wertbourne Grove west, 20 octobre 1856. Louis Lucien Bonaparte à Antoine d'Abbadie: Mon cher Mons. d'Abbadie, Euskaldun maiteac! [...] D'après ma promesse je vous envoie quelques mots que je me suis permis d'adresser aux basques la fête d'Urrugne. (BNP, naf., n° 21746, f. 425).

50. MB, 1857-IX-22.

51. BNP, FCB, n° 164, f. 93

52. Francisque Michel, *Le Pays Basque, sa population, sa littérature, et sa musique*. Paris, F. Didot, 1857.

53. C.A.F. Mahn, *Denkmaeler der Baskischen Sprache. Mit einer Einleitung, welche von dem Studium der Baskischen Sprache handelt und zugleich eine Beschreibung und Charakteristik der selben enthaelt, herausgegeben*. Berlin, 1857.

54. Thomas Uthurry, *Un gran souletin. Le chanoine Emmanuel Inchauspé 1815-1902*. Le Courier, Bayonne, 1950

meritua aldatzen⁵⁵. Ez hori bakarrik, Duvoisin berak egindako artikuluan *Le Courier*-en honakoa irakur daiteke, beraxekek Gasteluberri ezizenez idatzitakoaz:

*Chêne et laurier est une composition lyrique qui contient des beautés du premier ordre, mais dont l'exécution exige une douzaine de chanteurs et tout un orchestre; plus de ressources qu'on n'en peut trouver dans le pays. Une des conditions exigées des concurrents est que la chanson soit composée sur un air connu; cette pièce a manqué à cette condition. Nous ne voulons pas cependant qu'elle soit considérée comme rigoureuse; elle pourrait devenir une entrave à l'essor du génie. les paroles et la musique de nos anciennes poésies ont jailli en même temps du cerveau et du coeur de nos bardes. Si l'inspiration est heureuse, qui oserait faire un reproche aux poètes de nos jours d'avoir marché sur les traces de leurs devanciers et réuni leur double mérite?*⁵⁶

Noski, Erramuak Enperadorearen familia eta haritzak Euskal Herria irudikatzen zuten, enperadorearen ezkontza zela eta, hots, Napoleon IIIa Eugenia de Montijorekin ezkontzaz (1853) eta elkarrekin ukan printzeaz (1856).

Hogeita hemezortzi lan aurkeztu ziren. Gaia librea izateak ere izan zuen ondoriorik, eta lehen sariaren irabazlea azkenean, Intxausperen arabera, Jean Baptiste Elissamburu izan zen, *Tan tan tan (kadir dantz)*, lanaren ohoretan egin kantagatik *Bero deno burdina jo* airean. Jean Baptiste Elissambururen heriotzaren mendeurrenean Saran egin zen biltzarrean bere obraren azterketa berria burutu zen eta balioa berrikusi zuten ikerlari euskaltzale zenbaitek⁵⁷. Bertara jo dezake detaile gehiagotan interesatuak.

Iragarkiak zioenez, sarietarik bat brontzeko suzi bat izanen zen, zeinek euskal nazioa irudikatzen zuen⁵⁸. Hogeita hamabi lan aurkeztu ziren 1859an eta ohi bezala hauen berri *Courrier*-ean emango du Duvoisin kapitainak⁵⁹. Epai-mahaikoen artean sorturiko gora-beheren aurrean, Intxauspek etsaminatzaile laiko gehiago izan zitezen nahiago izan zuen, eta egiteko horretarako Ducos zaharra hautatu zuen.

Duvoisinek Abbadari igorri txostenean, zioenez, bazen onik testuen artean, hala Detcheparestou-ren bertsoak poeta frantsesenak baino ederragoak iruditu zitzaizkion. Hiribarren dela eta, ordea, dio, hark uste duela ez zaiola justiziarik egiten, baina zentzu eza dela jaun eta jabe haren lanetan, halere noizpehinka ez zaiola edertasunik falta, eta dioenean

55. Monsieur le capitaine, [...] Mon ami, au plutôt mon désir serait donc que vous donnassiez le makila au chant lyrique et allégorique sur le mariage de l'Empereur; l'once d'or à la chanson bachique, et l'honneur de l'impression à la chanson sur les mesaventures du marché et à celle qui est faite sur la mauvaise éducation des filles. Comme ces pièces restent, une fois imprimées, il importe qu'elles soient produites aussi parfaites que possible, (quoique je pense qu'en cela M. d'Abbadie ne serait pas de mon avis) je voudrais donc que vous fissiez disparaître autant que possible les petites tâches qu'elles peuvent avoir. Les corrections du reste ne changeront pas le mérite relatif des pièces.

On pourrait remplacer, par exemple, le mauvais vers de la pièce sur la fille mal élevée, *izanic ere hirour ehun par beharra badut nic er'egun*. [...] Agréez, je vous prie, l'expression de mes sentiments... Inchauspe prêtre. (BNP. FCB, n° 164, f. 544-545)

56. *Le Courier de Bayonne*, 1858-X-7.

57. Jean Aniozbehere et al., "Jean Baptiste Elizanbururen mendeurrenean. Sara, 1991-XII-20/21", *Euskera*, 1992-1, Bilbo, 11-297.

58. "Nous sommes heureux de pouvoir annoncer que l'un des prix de cette année consistera en un flambeau symbolique. Il représentera la nationalité cantabrique et sa vieille langue...", Capitain Duvoisin, "Concours de Poésie Basque", *Le courrier de Bayonne*, 1859- VIII-5.

59. Le Capitain Duvoisin, "Poésie basque. Compte-rendu du concours de 1858", *Le Courier de Bayonne* (1858-VIII-5)

Auñamendietako belarrez bazkatuko direla arrainak Belzuntzeren izena ahanzi baino lehenago, irudi barroko berezia darabilela, Du Bartas-ek ere ez zukeena dotoreago asmatuko.

Lehen saria Jean Baptiste Larralderi eman zitzaion *Ama haurren sehaskan lohakartzen* poemagatik, eta bigarrena Jean Gorostarsouri *Etxeko xokhoa*-rengatik. Benetan interesgarria Erromatik, Gorostarsouk Abbadiari bidali gutuna, non esaten dion, ez duela inoiz poetatzat bere burua izan, baina koroa bat ez duela inork gaitzesten. Gaineratzen du ere, nola Quiriten Zientzi, Letrak eta Ertederretako Akademiak bere baitan onartu duen eta euskarari buruz lan bat aurkezteko baimena eskatu duen, eta nola Diotallevi, jaun lehendakariari agindu dion, Erromatik irten baino lehen, euskal obren bilduma bat prestatuko duela Akademikoez erabil ditzaten⁶⁰.

Duvoisinek, ohi bezala, urtez urte ematen dio Abbadiari aurkezten diren poemen berri, eta 1860ko uztailaren 9ko gutun batean esaten dio, nola urtero behar izaten diren iragarkiak aldizkarietan eta ez dela batere erraz mugiaraztea apez gazteak bidal ditzaten beren literatur emaitzak, eta hilabetekari bat beharko litzatekeela eta bere gastuetan ere parte hartzeko prest legokeela⁶¹.

Jean Etcheto Senpereko errejenta kexu eta kexu arituko zaio Abbadiari maizto bidali gutunetan berak igorritako lanek ez zutelako epaileen onetsia aurkitzen. Hauen iritzietan alderdikeriak nagusi zirelako, batzuetan epaile eta epaitua bat zirelako eta "l'utile à l'agréable", hots, atseginari baliozkoa hobetsi behar zuketelako⁶².

Interesgarria deritzot ere Darricart Beskoitzeoak bertsoekin batera, Abbadiari euskeraz bidali gutunari eta, beraz, hona hemen:

Jauna,

*Sobera bertsu aurkhitzen baldin baduzu kantu huntan, aski duzu baldin ere ones-
ten baduzu, borratzea lehenbiziko koplaren bigarrenaren lau lehenbiziko bertsuak, hiruga-
rrenaren lau azkenak, zazpigarren koplaren zortzigarrenaren lau lehenbiziko bertsuak eta
bederatzigarrenaren lau lehenbizikoak eta biltzea hirugarrenaren lau lehenbiziko ber-
tsuak lau azken bertsuen aitzinean, lehenbiziko koplaren egiteko, bederatzigarren lau
azken bertsuak ezartzea zortzigarrenaren lau azken bertsuen aitzinean, bortzgarren
koplaren egiteko, molde hortaz ez tire sei koplaren baizen izanen, bakotzak zortzi bertsu-
ekin, eta guzien artean izanen dire berrogi eta zortzi bertsu ... enganutzen⁶³.*

Beraz, nabari da koplari batzuek bere lanari ez ziotela zenbait errejentek ematen ohi zio-
ten adinako garrantzirik. Hala, beti haserre Joanes Etchetok esaten dio Abbadiari 1861eko

60. Rome, couvent de Ste-Brigitte, le 8 octobre 1859. Lettre de Jean Gorostarsou. (BNP, naf. 22748, f. 427-428.)

61. "Je verrai avec plaisir les poésies qu'on enverra au concours. Cependant, je dois vous le dire, je me trompe-
rai fort si elles arrivent en nombre. L'année dernière, il fallut plusieurs articles de journaux, des sollicitations particu-
lières et une prolongation de délai pour arriver à un résultat passable. Je déplore profondément notre apathie; je n'ai
manqué aucune occasion de la rapprocher surtout à notre jeune clergé, qui pourrait se livrer à d'utiles travaux de litté-
rature nationales. Les inspirations de ce genre n'étant soutenues par aucun périodique, l'étincelle meurt dans le vide. Il
nous faudrait une revue mensuelle. Pour ma part, je contribuerais volontiers aux charges, et j'imagine que je ne serais
pas le seul", À M. Antoine d'Abbadie, 9 juillet 1860. "J. B. Daranatz, "Correspondance du Capitain Duvoisin", RIEV,
XIX, 63-65.

62. BNP, naf, 21747, f.338.

63. BNP, FCB, MS, nº 164, f. 263.

gutun batean, hiru pertsona ezberdini utzi diela poema bana beren zinadurez parte har dezaten⁶⁴.

Dena den, 1861ean ez zen izan Koplarien gudurik. Hori dela eta keXu izango zaio Abbadiari Hiribarren ez delako besta Urruñan ospatu, lehen Senpereko, Sarako, Donibane Lohizuneko eta Azkaingo bestez mintzo zela baina inoiz ez Urruñakoez⁶⁵.

Baina 1862an berriz ospatu ziren Lore Jokoak, eta epai mahaian jarraituko dute Intxauspe eta Duvoisinek. Honek Abbadiari idatzi gutunean, esaten dio, egiten dizkieten kritiken miserien gainera dagoela eta bost axola diotela. Halaber, tamala dela Abbadiak duen Euskal Akademiaren egitasmoa oraindik ez gauzatua, eta hilabetekariaz mintzo zaio hala nola Estatuaz lor zezaketen laguntzez⁶⁶.

Jean Baptiste Elissambururen *Apexa eta Lorea* izan zen saritua, lehen eta bigarren aipamenak Laphitzek eta Garrok izan zutelarik. Azkenean Jean Martin Hiribarrenek ere aipamena izan zuen bere *Herriko Biltzarraren Gainean* izeneko bertsoekin, non bere epikotasunari uko eginez umoreari eta ziriari heltzen zion eta asmatzen.

1863a izango da Urruñan Koplarien Guduak antolatzen diren azken urtea. Zortzi poema aurkeztu ziren bederen (155-163), eta lehen saria Bethiri Olhondok jaso zuen *Marinela* izeneko koplekin.

Lehen aldiz Saran 1864. urtean antolatu ziren eta hona bertako auzapezak Abbadiari idatzitako esker oneko gutuna:

Sare, 25 août 1864

Monsieur,

J'ai l'honneur de vous annoncer, en réponse à votre lettre du 24 du mois courant que la Commune de Sare accepte avec une vive reconnaissance, la proposition que vous lui faites de donner, sur la place publique, le jour de la fête patronale, le 12 septembre prochain, les prix de balle, poésie, et improvisation basque.

J'ose espérer que vous me ferez l'amitié de descendrez chez moi, sans façon, et en vrai Basque, comme vous l'avez déjà fait dans le temps.

Je serai bien aise également de recevoir les amis qu'il vous plaira d'emmener avec vous.

Veuille agréer, Monsieur, l'annonce de mes sentiments les plus distingués.

Le Maire de Sare

*Dithurbide*⁶⁷.

Eta 64tik 78ra Sara izango da, -1877ko Donapaleuko salbuespenaz eta 1870ko hutsegitaz at-, Pilota, Poesia eta Bertsolaritzaren Bestaren kokalekua. Intxausperen iritzia berriro

64. " fait à St Pée, 19 juillet 1861 [...] je vous sou mets que j'ai cédé trois autres pièces à trois individus qui le présenteront aussi au concours sous leurs signatures [...]. J. Etcheto.", BNP, naf. 21747, f. 344.

65. "Je regrette, honoré Monsieur, que votre fête d'Urruñā n'ait pas lieu...", Bardos, 6 juillet 1861. BNP, naf., 21748, f. 513v.

66. J. B. Daranatz, aip. art., "Lettre à A. d'Abbadie, 20 août 1862", *R/IEV*, XIX, 449-450.

67. BNP, naf., 21747, f. 88

gailendu zen 1864ko jaian, eta Larralderen *Muthil-zaharra* poema atera zen irabazle hogueiren bat kantaren artean, bigarren saria M. A. Salaberriren *Solferinoko itsua* kantarentzat izan zelarik.

Duvoisinek Abbadiari idatzi gutunean⁶⁸ irabazitako kanten aireez, zioen, Larralderena atsegina zela, eta besteenak bakoitza bere jeneroan ere bai, beraz orfeoitarrek entzuleen kanta zaletasuna aseko zutela, noski.

Ez zitzaion gehiegi laket, ordea, Abbadiari andereen luxu zaletasunagatik mutil-zahar iza-tea hautatuaz Larralde medikuak egin kanta, eta jakinik Kontseilu orokorreko partaide zen David doktoreak gai bera ukituz baina ikuspegi ezberdinez, moralagoz, idatzi zuela kanta bat, horixe bidal diezaiola eskatzen dio, nahi izanez gero anonimatoa gordeaz⁶⁹. Honek gure ustez *Putxurdina* (188) izeneko igorri zion.

Bitxia da ohartzea ere, nola 1865. urteko guduan Larralde izanen den garaile, *Eria eza-gutzaz bethea errexinoletarentzat*, eta Abbadiari zuzendu gutun batean Donibane Lohizuneko medikuak honako ordena ematen zion: 1^o *Eria da errexinoleta*; 2^o *Primadera*; 3^o *Arrosa eta imortala*; 4^o *Artzaingoa*. Beraz, bere burua lehena, ipintzen zuen⁷⁰, eta antza denez, epai-mahaia hots, Duvoisin kapitaina⁷¹ ere iritzi berdinekoa izan zen.

Jean Verges saratarra zen *Artzaingoa* izeneko kantaren egilea, honela agertzen ziolarik nor zen sortzailea Abbadiari:

Saran egina

Jauna,

Igorri izan tut Baionarat zenbait bertsu, artzaingoaren gainian, naski hekien egilea-ren izena galdegiten du Baionako gazetak. Huna, beraz, jauna, nola deitzen den bere bihotz guziez errespetatzen zaituen zure zerbitzari leiala.

Jean Verges⁷²

1866an Intxauspe pozik dago baduelako non hautatua, eta ohorezko sariaren eta lehen sariaren irabazle, beraz, bi lehenena Jean Baptiste Elissamburu izango da, zeinek Okerrari buruz eginiko lau bertsoez gain bostgarren bertso bat bidaltzen dion, esker onez, Abbadiari⁷³.

68. BNP, naf., 21746, f. 177.

69. Lettre d'Antoine d'Abbadie à Monsieur le Dr. David, membre du Conseil Général, 1865, août 21, BNP, naf., 21746

70. BNP, FCB, MS. 164.

71. Lettre à M. D'Abbadie, Bayonne, 7 de septembre de 1865. BNP., naf. 21747, f. 188.

72. "écrit à Duvoisin, 1865-IX-6", BNP, naf., 21748, f. 542.

73. Monsieur,

Je vous remercie de la gracieuseté que vous avez faite à ma chanson du borgne. J'avoue que je ne méritais pas, ayant voulu arriver au concours au moment où le prix se serait trouvé décerné. J'ai la faiblesse de craindre les coups de bâton et plus encore les quolibets. je ne devais donc pas concourir. Mais puisque malgré tout, vous avez fait à mes vers l'honneur de les imprimer, je me fais un devoir de vous en rendre grâce et de vous envoyer un dernier couplet que j'y ajoute: V *Ez dugu zeren khexa biharko fortunaz, / Gauden deskantsu gabaz, arinik egunaz, / Goza gaiten aldian aldian dugunaz, / Berehala! / Jainkoak garamatza ongi den bezala, / Atzo hala, / Egun hola, / Nihork ez-jakin gero nola!* / Votre très humble serviteur, Laphurta. (BNP, FCB, MS. 164, f. 355)

Agustin Etcheverryk, urte honetatik aurrera maiz ageri den den koplariak, bi gutun euskaraz bidali zizkion bere kanten lagungarri:

a) *Jauna, pentsatzen dut emanen ditutzula Sarako eliza bestako primak, hara ikusiko duzu idabazten ahal dutenez kantu horiek prima eta huna bertziak pobriarenak*⁷⁴.

b) *Jauna, lehen ere igorri ditut kantuak, bainan ez nitzan satifatzen, presuna batek erran daut xirliska eta xinaurriaren gainean egiteko kantuak. Hona egin ditut, agian gustatuko zare. Arras pullita da haen bizitzeko maera. Agian eder izanen zaitzu.*

Huna finitzen zure esperantza onean zure zerbitzari.

Huna nere adresa.

Monsieur Auguste Etcheverry

*Maison Ihartcegaray, à Sare*⁷⁵.

Argi ikusten da, beraz, batzuetan gaiak ere enkarguak izaten ohi zirela. 1868ko festan Joanes Verjeseke idatzi *Oraiko neskatxa batzu* atera zen garaile, eta Jean Baptiste Elissambururen *Eskalduna* poemak irabazi zuen bigarren saria. Azken poema honek ez zuen Intxausperen ustez alegoriaren arauak betetzen, halere Ademak idatzi *Xanxundegiko xakhurr*a kantaren aurretik gelditu zen. Hau, zioenez, “sous le rapport purement littéraire le *chacur goseac jana* me paraît la meilleure”, alegia, literatur ikuspegia soil soilik kontutan harturik hoberena zela⁷⁶. Berriro ere nabarmen da Duvoisin eta Intxausperen arteko konponketa.

Joanes Oxalde izango da 1868an irabazle *Enperatrizari* izeneko kantarekin, eta Duvoisinekin hizkeraren zuzentasuna eta garbitasuna hala nola gogoetak gorai patzen dituen arren “un peu trop de recitatif”, aurkitzen dio, hots, errexitatu puntu, kalaka nabarmenegia, baina beste urteetan saritutakoekin konparaturik hobeagoa dudarik gabe⁷⁷.

Ez da batere erraza urte guzti hauetako koplarien guduen kronika zehatz bat osatzea, zeren soilik poema sarituak ohi ziren argitaratzen eta argitaragabeez epai-mahaien arteko eta Abbadiarekiko gutunetan aurki daitekeen argitxoa baita ia bide bakarra. Hona esate baterako Sarako alkate zen Goyetcheke 1868koez Abbadiari egiten dion itxoria:

Sare, le 17 septembre 1868

Monsieur d'Abbadie,

Je m'empresse de vous rendre compte de la distribution importante des prix, qui grâce à votre coeur généreuse ont eu lieu à Sare à l'occasion de la fête locale.

Le programme annoncé par les affiches a été strictement et ponctuellement observé.

Favorisé par un temps magnifique, tout s'est passé sans que le moindre incident soit venu interrompre les divers exercices qui se sont succédés.

74. BNP, FCB, MS. 164, f. 362.

75. BNP, FCB, MS. 164. f. 365.

76. BNP, naf., 21748, f. 676.

77. “ 25 août 1868 à M. d'Abbadie”, BNP, naf., 21747, f. 176.

Le lundi 14 après l'exécution du chant de poésie couronné, dont vous trouverez des copies ci-jointes, la partie de paume au rebot a commencée vers les onze heures. Elle a été disputée de part et d'autre avec un acharnement inoui, à tel point, qu'on a fait 40 jeux après avoir prolongé plusieurs fois. Vers les trois heures, le jury voyant les joueurs exténués de fatigue, et de l'heure avancée de dîner, a ordonné de cesser la partie et décidé que la prime de 400 f. serait partagée entre les huit joueurs. Il en a été de même pour l'once d'or destinée pour le joueur jugé le plus habile, soit parmi les gagnants ou perdants. Elle a été décernée par le Jury aux sieurs Diharce de Hasparren et Mathieu Borotra d'Ahetze, les deux comme ayant les mieux joueurs parmi les huit.

Le lendemain 15, à l'heure annoncée, la partie de blaid a eu lieu, entre deux joueurs de Hasparren et deux de Vera. La lutte, au commencement indécise, a fini par triompher pour ces derniers.

Ensuite est venu l'improvisation de chant en langue basque. Il n'y a pas eu un concours sérieux; car trois concurrents seulement se sont présentés, dont un a été écarté; le jury a jugé à propos de partager la prime aux deux autres.

Le concours agricole des vaches laitières et génisses a été l'objet de la distribution des primes dans la matinée du mercredi. La prime de 50 francs a été accordée à un propriétaire d'Ascain, et les deux autres à des propriétaires de Sare.

Ces jours solennels se sont terminés par un bal public, qui, illuminé par un grand nombre de lanternes vénitiennes, en rehaussait l'éclat, et offrait un spectacle grandiose à la foule compacte qui s'est maintenue jusqu'à dix heures et demie.

Je termine, Monsieur d'Abbadie, ce compte rendu en vous témoignant tant en mon nom qu'au nom de tous les habitants de la commune notre plus vive gratitude pour la sympathie que vous apportez à la commune de Sare.

Le Maire

M. Goyetche⁷⁸.

Hiru egun iraun zuten herri besta hauetan, beraz, lekuri izan zen poesia, bertsoa, pilota eta dantzarentzat hala nola haziendarik hoberenaren erakusketarentzat.

Hurrengo urtean, 1869an hain zuzen, Agustin Etcheverry gertatu zen lehen sariaren irabazle, *Hiltzera dohan haur baten auhenak* poemarekin (214), eta bigarren saria Edmond Guilberten *Sarako andregeia* kantari eman zitzaion. Ez ziren izan, ordea, ideia bereko ez Intxauspe⁷⁹, ez eta Julien Vinson, zeinek Lore Jokoen berri eman zuten Pariseko Linguistikako

78. BNP, naf., 21748, f. 435-436.

79. Monsieur et très honorable ami,

J'ai le plaisir de vous annoncer qu'il est arrivé à la foie plusieurs pièces de poésie basque pour le concours de Sare, et dans le nombre il y en a de bonne. La mieux faite est je croie, *Emaztegeia*, il y a aussi une charmante élégie sur l'enfant unique d'une mère que la mort vient enlever. Cette pièce est très poétique et d'une composition irréprochable. Il y a un seul couplet malheureux pour la forme de la poésie. Je viens de faire passer toutes les pièces à M. Duvoisin. [...] Je lui ai dit que je serais d'avis de donner le makhila à l'auteur de *Emaztegeia* et l'once d'or à l'auteur de l'élégie. *Emaztegeia* est composé dans le genre de la chanson antique, il me plaît beaucoup.

Je craignais pour le concours, mais je suis content aujourd'hui et je sais que votre satisfaction ser encore plus grande que la mienne... (Lettre de M. Inchauspe à Antoine d'Abbadie, Bayonne, le 16 août 1869; in: BNP, naf. 21748)

errebista batean⁸⁰. Hauentzat Guilbertena zen hoberena, eta, Vinsonek Abbadiari eskaturik, prest zegoen abesbatzak lehenaren ondoren *Sarako andregeia* kantatu zuen.

Vinsonek kontatzen digu ere bapateko bertsoak izan zirela, eta hauetan ohi diren bertsoen gogoetak eskasak, punduak erdipurdiko eta ankamotz, halere kantatzen direnez, jakina dela musikak mirariak lortzen dituela. Ibarra izeneko Jatsuko zapatagina eta Azkaingo Maria Luisa Osorioren artean izan zela eztabaida, gaia ezkontza eskea izan zelarik. Gaineratzen du Vinsonek ez zela batere arrunta andere bertsolariak aurkitzea jaietan eta ordurarte Hondarribitar neska bat zela ausartzen zen bakarra, baina azken hiru urteetan ez zela ageri plazetan kantari.

Ez zen 1870ean bestarik izan Saran gerra piztu baitzen, bertako auzapezak Abbadiari kontatzen dioenez⁸¹. Halere, aurkeztu izan zen kantarik, hala nola, *Arrantzailearen alhaba*, zein utzi zuten Intxauspek eta Duvoisinek urrengo urterako. Kexu agertu zitzaion Senpereko errejenta Joanes Etcheto Abbadiari Sarako sarietik egin leialtasun hutsaz, eta honek erantzun zion arrazoi ezin saihestuek eragotzi zutela jai eta zetorren urtean, Jainkoa lagun, berriro ospatuko zirela⁸².

Dena den, 1870. urtea benetan urte ederra izan zen euskal kantentzat, Mauleko abokatu zen J.-D.-J. Sallaberryk Baionan inprimarazi baitzuen ordurarteko kanta bildumarik ederrera, berrogeita hamar kanta musikaz eta frantses itzulpenaz lagundurik, eta ohar benetan interesgarriz orniturik⁸³.

Jarraikitzen dio Goyetche, Sarako auzapezak, berrien emateari eta 1871ean Abbadiari idatzi beste gutun batean esango dio, bertsolarien arteko guduan lehen gaia izan zela, base-rrian gelditzen den laboraria eta feriaz-feria dabilen arteko eztabaida, eta bigarrena soldadogaiaren eta soldadoxkatik ihesi dohanaren arteko elkarrizketa. Oso bizi eta pollita izan zela, eta erdibana sarituriko bi bertsolariak Etcheto saratarra eta Dibarrart jatsuarra izan direla⁸⁴. Poeten lanez deusez.

80. *Revue de Linguistique et de Philologie comparée*. Paris, 1869-70, III, pp. 366-378.

81. Sare, le 2 septembre 1870

Monsieur d'Abbadie,

J'ai cru devoir vous informer que la Fête Locale de Sare a été renvoyée à plus tard, à cause des événements de la guerre qui nous préoccupent vivement dans ce moment.

Veillez agréer... Le Maire de Sare.

M. Goyetche.

82. Abbadia, 1870, octobre 11

Monsieur,

J'ai reçu votre lettre du 3. Il n'y a eu aucune déloyauté pour les chansons de Sare. Par un concours de circonstances de force majeure, comme je n'en ai pas vu depuis vingt ans que je donne ces prix, les juges habituels se trouvaient empêchés. Quand je fus informé de cette mésaventure j'étais trop loin d'ici et même de Paris pour former un jury nouveau. Espérant que la chose pourrait s'arranger sans moi j'ai envoyé à Sare et le makhila et l'once d'or qui me sont revenus et que, Dieu aidant, je donnerai l'année prochaine[...]

Agréez... (BNP, naf., 21746)

83. *Chantes populaires du Pays Basque*. Paroles et musique originales recueillis et publiées avec traduction française par J.-D.—J. Sallaberry, (De Mauléon) avocat, Bayonne, Imprimerie de veuve Lamaignère, 1870.

84. BNP, naf., 21748, f. 443.

Baina izan zen eta gainera poema ugari Pirineetako bi aldetakorik. Irabazlea berriro Jean Baptiste Elissamburu izan zen *Xori berriketaria*-z (220). Gratien Adema "Zalduby"⁸⁵ aurkeztu zuen *Jeus* tituluko bertso benetan bitxiak, hitz horren inguruan eratuak. Duvoisinek kantaren kopiaren ertz batean honako iruzkina idatzi zuen: "Morceau original, jeu de mots d'un bout à l'autre, bon à lire", alegia, irakurgarria zela, eta orijinala benetan, hitz jokoz betea lehen bertsoerrotik azkeneraino⁸⁶.

Hegoaldeko bertsogilerik ez zen falta izan urte horretan, horien artean Joakin de Irizar y Moya, injeniari bergararra, zeinek zortziko batzuek bidali zizkion Abbadiari sari zitzan, baina, honen harridurarako ez zuen makilarik ez urrezko ontzarik nahi, kanten berrehun ale inprima-tu baizik, zortzikoak heda zitezen herrian, ezen Sallaberriy plazaratu bilduman ez omen zen molde horretako bertso alerik agertzen⁸⁷. Injeneriariak frantsesez idazten zion bezalaxe, hona euskaraz Jean Etchenic koplariak idatzi gutuna:

Donibanen egina, buruilaren 17an, 1871

D'Abadi jauna,

Badut ohoria zuri eskribatzeko hitz eman zaitudan bezala. Egortzen dauzkituz bi kantu. Kopiya, bai eta ere egorriko dauzkituz egiten ditudan aldi guziez.

Zuri komeni zaitzularik, primako presentatu ditudanak. Nahi nituzke ateratu, baldin nahi baduzu atera detzadan. Othoi, izanen duzu borondatia, baiamena egortzeko xoilki. Ez dut nahi erran zinduen bezala bordaririk egor dezazun pagamenduz kizitione.

Barkatu D'Abadi jauna, ene ausartzia.

*Jean Etchenic*⁸⁸.

Jean Etchenic hau garaian koplari ezaguna behar zuen izan, ezen Baionako E. Lasserreren inprimategian moldiztegitatu zituen, besteen artean iritsi zaizkigun bertso hauek: *Kantu berriak zahar ezkongaien gainian* (Airea: *En jouant du Mirliton*), 15 laukoduna; *Kantu berriak Gerlak eman tuen desordren gainean* (Airea: *Arnoa eta urrena*), 13 zortzikoduna; *Kantu berriak naituenak kantatu* (mainku, konkor eta okerre buruz), 15 laukoduna; eta *Kantu berriak* (Airea: *Tolosan egin dute lastozko zubia*), non bere bizi tristea kontatzen digun 22 laukotan, eta non 21.ak honelaxe dioen:

*Kantuak iten ditut, saltzeko plazetan,
Nahi duenak hartzen du, ezta bortxarikan,
Jakitate hau ez dut ez ebatzirikan,
Jainkuak eman daut, ez da dudarikan. (bis)*

Ohi bezala Goyetchek berriro idatziko dio Abbadiari 1872ko irailaren 13an, esanez sekulan baino ederragoa izan zela jai. Nola arratsaldeko bostetan hasi ziren bertsolariak kantari. Choperena eta Dufau senperetararak, Irigoyen azkaindarra, Etcheto saratarra eta Etchart ezpeletarra. Gaia : batek heziketaren aldeko bertsoak moldatu behar zituen, heziketarik ez

85. Adema-ren bizitza eta obraz ikus: Piarres Xarriton, "Gratien Adema-Zalduby-ren bizia ta lanak (1828-1907)", *Mundaiz*, nº 29, Donostia, 1985, 47-54.

86. BNP., FCB, MS 165, f. 19.

87. Joakin de Irizar, 14 Août 1871, lettre à Antoine d'Abbadie, BNP, naf., 21748, f. 512-515.

88. BNP, FCB, MS. 165, f. 335

ukaitea hobe zela besteak. Aipatu azkeneko biak gertatu zirela irabazle, beren artean banaturik laurogei liberak erdibana.

Koplarien kantarik ere ez zen faltatu (246-253), baina epai-mahaikoek ez zuten pentsatu sariren merezitzaile zirenik, eta hutsik utzi zuten.

Ez da, ordea, horrelakorik gertatuko 1873an, ezen "Hergaray" ezizenez Gratien Ademak bidalirik bi alegia, hauegariko bati eman zioten, aho batez Intxauspe eta Duvoisinek. Irabazlea *Bildotxa eta otsoa* izenekoa gertatu zen.

Lehenaldiz, 1874ean hegoaldeko bati emango zaio saria. Kontutan eduki behar da Espainian bigarren karlistadako gerra (1872-76) bizi-bizian zegoela, eta Abbadiaren sinpatiak Karlosen zaleekiko nabarmenak zirela. Aita Aranak⁸⁹ bidalitakoa zen, eta jakina da jesuita honek Abbadia eta Bonapartekiko izan zituen harreman onak. Abbadiari euskaraz eta frantsesez idazten zion argitaratzen ziren euskal lanen berri emanez, eta hark estimu handitan zeukan. Kantak argitaratzeko lanak izan zituen egoera zela eta, Intxauspek zionez Abbadiari, Prefetak ez baitzuen baimenik emango⁹⁰. Ez zetozen kasu honetan elkarrekin Duvoisin eta Intxauspe, halere plazaratu zen *Biscaitarra* ezizenaren pean, eta bertako XVIII. bertsoak honelaxe zion:

*Españako koroia buruan jantzita
Don Karlos izango da Espainolen aita,
Esan bada gogotik bildurrari itxita:
BIZI BEDI DON KARLOS TA ANDRE MARGARITA. (256)*

Pekatua egina zegoen, zeren Abbadiak berak Aranari idatzitako gutun batean esaten zion, honek Intxausperi bidalitako kantaren orijinala moldiztegitik izenik gabe jada argitaratua zela, eta eman dugun bertsoa 22.a eta azkena omen; hala eta guztiz ere, lehen aldia zela hegoaldera zihoala saria, jakin nahi zuela nor zen egilea, eta kausa onagatik emana zela⁹¹. Bonaparteri idatzi zion beste gutun batean⁹², non bidaltzen dion Sarako iragarkiarekin batera kanta sarituen ale bana, Abbadiak esaten zion ez zela Sarako plazan kantatu ahal izan, ikusirik zeukan politika jaidura.

Poesia ez ezik prosa lanak ere onar daitezkeela aurreko urtean bezalaxe, dio Abbadiak Intxausperi igorri gutun batean (1875-VI-20), iragarkian espreski hori ager dadin aginduz.

89. Jose Inazio Arana (Azkoitia, 1838 - Oña, 1896), jesuita, erlijioa eta euskara gai duten lan anitz argitaratu zituen, baita eskuzkribu anitz utzi. Bere lanen artean: *San Ignacio de Loyolacoaren bicitza laburtua euskaraz eta gaztelaniaz* (1872), *Notas bibliográficas sobre el Cicerón euskaro, Bai pecatu da liberalqueriya* (1888), "Bonapartek eta aitak elkarri egin kartak" (Ed. Patxi Altuna, *Fontes Linguae Vasconum*, Iruñea 1985, nº 46, 305-341), "Arte métrica de la lengua bascongada" (1872) (Ed. Patxi Altuna, *Fontes Linguae Vasconum*, Iruñea 1992, nº 59, 119-164)

90. "[...] Le Prefet n'osera pas accorder la permission demandée pour la publication d'une chanson carliste" (Lettre de M. Inchauspe à Antoine d'Abbadie, Bayonne, 12 septembre 1874. BNP, naf. 21748, f.661)

91. "C'est la première fois que le prix est décerné à un Basque au Sud des Pyrénées, ce dont je suis fort aise: je suis encore aussi content de le voir donné à une chanson pour la bonne cause", Lettre d'Antoine d'Abbadie au P. Arana, 1874-VII-29. (BNP, naf., 21746)

92. 1874-VIII-8

Antoine d'Abbadie à Son Altesse le Prince L. L. Bonaparte

Monseigneur,

J'ai l'honneur de vous adresser ci-inclus l'affiche de Sare et un exemplaire des chansons couronnées. Pour la première fois on a préféré du Biscayen parmi les pièces envoyées, mais vu sa couleur politique on n'a pas chanté cette pièce carliste sur la place de Sare... (BNP, naf., 21746)

Goyetche irten zen 1875. urtean lehen sariaren irabazle *Ezkila* kantaren medioz, eta Celhaito bigarrenaren, *Ondikozko saria* izenekoaz. Ez zen, beraz, besterik ezean gorde zutena Agustin Etcheverryren *Kattalin* izeneko poema sariturik galditu.

Don Karlosen hondamendia 1876an guztiz erabatekoa izan zen, horrela bera eta bere jarraitzaileek muga iragan zuten ihesi alfonsistak atzetik zituztela tiroka. Gertakizun hauen berri Sarako auzapeza izandako Goyetchek Abbadiari idatzi beste gutun batean (1876-II-19) ematen dio. Nola konpainia batekin eta honen kapitainarekin batera aurkeztu zen tiro lekuan eta adierazi koronel alfonsitarrari "qu'ils avaient commis une violation de territoire et qu'il y avait eu des boeufs et des brebis tués par les soldats", lur arrotz batean zebiltzala legearen kontra eta bere soldadoek idiak eta ardiak hil zituztela⁹³.

Bada urte honetan ere literatur aldetik berrikuntza bat, eta hau prosaren lantzearena da. Auguste Etcheverryk Abbadiari idatzi gutunean (1876-V-31) adierazten dio, *Laminak* izeneko lantxoia egiten ari dela, eta Antonek erantzuten gaia benetan oso interesgarria dela, eta hitz lauz bertsotan bezain ongi trata daitekeela, ezen prosa ere saritzeko agindua eman zuela, baina ordurarte ez zela hitz lauzko lanik aurkeztu⁹⁴. Ez zen Abbadiaren eskaera hutsean erori, abuztuaren 22an *Laminak* ez ezik beste ipuin mirezgarriak bidali baitzizkion⁹⁵, duela gutti Xabier Kaltzakortak argitaratu dituenak⁹⁶, eta beraz gure edizioan bertsotara mugatuko gara.

1876an ez zen saririk eman, epai-mahaikoek bat zetozen arren Piarres Uxaleguy ezize-nez ezkutatuturik zegoen Gratien Ademaren *Biba Republika!* kanta irrigarri eta zirikatzailea zela hoberena, baina bertso politikorik ez komeni antza, oraingoan⁹⁷.

Iholdiko apezari Abbadiak idatzitako gutun batean aitortzen dio sariak sortzerakoan herri ezberdinetan ematea izan zela bere asmoa, eskatuz gero, baina Sarakoa izan zela ardura hartu zuen herri bakarra⁹⁸. Baina badirudi gehiegixko iruditu zitzaiola iholditarrei ohorea eta Donapaleuko auzapeza zen Baratxartengana zuzendu zen Abbadia eta honek onartu egin zuen erronka. Beraz, Lapurditik Behe Nafarroara iragan ziren Koplarien Guduak 1877an.

Urte honetako irabazlea Martin Arrupe izan zen *Xori kaiolatik ihes goan dena* kantaz. Aipamena 1212. *garaitzapena euskaldunakin Nabasen*, Gipuzkoarra delako batek idatziari eman zitzaion. Honen egilea, noski, Abbadiaren lagun jesuita, Jose Ignazio Arana zen.

93. BNP, naf., 21748, f. 456.

94. "...le sujet des laminak est très intéressant et peut être en prose aussi bien qu'en vers, car j'ai promis de récompenser la prose aussi, mais jusqu'ici on ne m'en a pas envoyé..." (Lettre d'Antoine d'Abbadie à Auguste Etcheverry, 1876-VI-3. BNP, naf, 21746).

95. *Ichtorio zaharrezko bilkhuia bat* Agustin Etcheverry saratarraz egina. BNP, FCB, MS. 169, f. 2-22.

96. Xabier Kaltzakorta, *Lamia, Sorgin eta Tartaroen erresuma ezkutua*, Labayru, Bilbo, 1997.

97. "Mon cher Chanoine,

Je suis entièrement de votre avis Biba Errepublika est la meilleure des pièces qui ont été présentés au concours de poésie de cette année. Mais elle a une tache originelle; elle est politique, et M. d'Abbadie a toujours mis la politique hors du concours. Je doute que, cette année, il soit plus tendre, envers elle..." Lettre de J. Duvoisin à M. Inchauspe, Biarritz, 4 septembre 1876 (BNP., naf., 21747, f. 96)

98. "j'ai toujours dessin de les donner en diverses paroisses basques selon qu'on m'en ferait la demande. Jusqu'ici Sare fut la seule qui s'en soucié, aujourd'hui Iholdy donne un bon exemple..." Antoine d'Abbadie à Monsieur l'Abbé Berho, curé d'Iholdy, 1876-VII-4. (BNP, naf., 21746)

Donapaleuko adibidea ikusirik Beguieux Mauleko alkatea besten fama bereganatu nahirik izanen da, eta prest dagoela ere bertan antolatzeko idatziko dio Abbadiari⁹⁹. Berdin Donapaleuko alkate berria den G. Diriar prest egonen da berritzeko besta, baina Sarakoa Goyetche auzapeza izanen da hautatua. Honek adierazten dio Abbadiari, nola behin esan zion, urte batean Frantzian eta hurrengoan Espainian emateko asmoa zeukan. Nola bestara inguratzen den jende arrotzetik erdia espainolak diren, antola daitezkeela pilota partidak frantses eta espainolen artean, hala nola poesia, behi eta bigen nor gehiagokara., horrela bilatzen den nazionalitate izpiritua erdietsiz¹⁰⁰.

Saran ospaturiko 1878ko bestetan ere ez zen lehen saririk eman, eta bigarren saria Joanes Oxalde bidarraitarraren *Khilo-egilearen kantuak*, *Kaiolako xoriak alegera dira* airean kantatzekoa zenari eman zitzaion.

Eta aipatu dugun gogo izpirituari jarraikiz, 1879an lehen aldiz Abbadiaren bestak Añamendietako bestaldean ospatuko dira, Elizondon, hain zuzen. Bertan Duvoisin Campionen aholkulari bezala agertzen zaigu. Maiatzaren lehenean igorri gutun batean kapitainak adierazten dio ia hogeita hamar urteren esperientzia baduela horrelako jaialdietan eta ikasi duela hobe dela poetari gai librean jarduten uztea, jenero ezberdinak orekaz epaitzeko zailtasunak teori mailakoak praktikan beti nabarmen ageri denez zein den hobereña¹⁰¹.

Bi sari emango ziren, dena den, bata Abbadiak gai librean aritutako kantari eta bestea Asociación Euskara delakoak *Euskaldunen gogoak* gaiaren inguruan hobekien idatziko zuenari. Honelaxeko deia egiten zuten Besta antolatzaileek:

[...] *2.coric Arrats-aldeco 3an emanen da 80 pezetaco saria, eta zilarreztatuzco makil bat coplac euskaraz, gutienic 50, obekienic moldatu dituenari, edo condaira bat, euskaraz ere, mintzo larrian izkribitzen duenarentzat. D'Abbadie Jaunak emanen du sari au.*

Elcargoac emanen du 125 pezetaco saria bersotan gai unen gañean "Euskaldunen gaucic maiteena" antolamendu erritar oberena egiten duenarentzat.

[...] *Bersotan paraturico antolamenduac bear dute eginac izan, euskal-errico aireen batean canta daizken gisan. Elcargoac moldizkiratuco ditu antolamendu oec, eta oken egille bacotchari emanen zaizco 20 araude*¹⁰².

Felipe Arrese Beitia izan zen lehen sariaren irabazlea, *Ama Euskeriari Azken Agurrak* poemarekin, eta bigarrena Ramon Artolari eman zitzaion *Altabizkarko Kantua* moldatzeagatik.

Prosa lanen artean ohorezko aipamena eman zitzaion *Lamiaren kantua* egin izan duen lputzari, zioetenez sarituriko bertsoek. Nor ote zen lputza eta ohartu ginen bazuela Klaudio Otaegik titulu bereko itzulpen bat, etorkiz Antonio Truebarena, eta halaxe zioela Hondarribiko maisuak:

... eta aurten besteratu diot euskarara lau buru edo kondairatxo, D. Antonio Trueba jaunaren liburu batetik [...] Oetako bat biraldu diot Elizondoko festak egin arazten dituan

99. Lettre de Monsieur le maire de Mauléon Beguieux à Antoine d'Abbadie, 18 mai de 1878. (BNP, naf., 21746, f. 268)

100. "L'esprit de nationalité rendrait ces parties et concours beaucoup plus intéressants et plus animés, et de cette façon le but que vous vous proposez, serait atteint", Lettre de M. Goyetche à Antoine d'Abbadie, Sare, le 17 avril 1878 (BNP., naf., 21748, f. 122)

101. J. B. Daranatz, aip. art., 349.

102. *Revista Euskara*, II, Pamplona, 1879, 21.

*Elkargoari naiz ez jakiñ ote dituen lan onek jostaguda artan parte artutzeko bear diran kondizioak*¹⁰³.

Hitz lauzko lan hau *Revista Euskara*-n argitaratu zen¹⁰⁴.

Ez dakigu zer arrazoirengatik, baina Abbadiak gaztelaniaz Arrese Beitiari¹⁰⁵ igorri gutu-nean esaten dio, bere lanak merezi izan duela lehen saria baina esplikatuko ziotela zergatik ez zioten ematen, ordez, berak emango diola ehun peseta balio duen urrezko ontza joaten bazaio bisitan eta era berean margoak eta eskultura ikusteko aukera izanen duela¹⁰⁶.

Horrela bada makila eta urrezko ontza Ramon Artolari¹⁰⁷ eman zitzaion. Honek euskeraz eskertu zion Abbadiari honakoa adieraziz:

1879-VIII-2

Mr. d'Abbadie,

*Gutziz jaun andi nerea, gaztigatuba izandu nintzalarik bar arratsean pasatzeko M. Georges Petit Meurville konsileraren etxera eta modu berean aurkezturik jaun berarengana adierazo ziran, nola bedorrek bialdu ziozkan neuri eskuperatzeko saritzat gertatu ziren ontza bat urre eta makilatxo, bada jabetu ondorean oetzaz eman nion eskribaturik oen argibidea non erakai berez eta modu berean agerkaitzen diodan bedorri ere bere gubernukoari. Jaungoikoak gorde dezala urte askoan ala dio gure begirunez bere onetan betiko zerbitzari arkituko duen onek zeina den Ramon Artola*¹⁰⁸.

Elizondo festetan disgustu handia hartu zuen Abbadiak, ezen sariak ematean, eskatu zion alkateari antzara joko krudela ezaba eta ken zezan, baina honek ezezkoa eman zion. Orduan, bapatean altxa eta alde egin zuen.

Bestetik, bozkarioz bete zuten Felipe Casalek eta Jose Olanok Donostiatik bidali zizkieten gutunek. Donostiako hiri adimentsuan 'dans la ville intelligent de Saint Sébastien', bere euskeraren aldeko ahaleginez ohartu baitziren eta gonbitatzen baitzuten Diputazioak antolatu Letren jaiara. Hona Olanoren gutuna:

Donostian, 1879 garrenko agorraren 26an

Jauna,

Uri onetako Bilguma txit geidiatiari iruditu zaio euskaldunen izkuntz miragarri eta kondaira baino lenagokoari dion maitasuna gatik, egin bear duela alduen guzia au

103. N. Altzola, "Euskal-Bibliographiarako Oharrak. Otegi'tar Klaudio.", *Egan*, Donostia, 1960, 254.

104. Klaudio Otaegi (eusk.), "Lamiaren kantua. Andre Florentina Camaleño Santa Anari.", *Revista Euskara*, T. III (1880) 93-96, 158-160, 270-272, 319-320; T. IV (1881), 282-285, y 310-313.

105. Felipe Arrese Beitia (Otxandio, 1841-1909), irudigile eta poeta. Bere obren artean: *Diccionario Manual Bascongado y Castellano y Elementos de Gramática* (1884), *Ama Euskeriaren Liburu Kantaria* (1900), Bere poemen edizio osatuena S. Onaindiak egina da: F. Arrese-Beitia, *Olerkiak*. Bilbo, 1956, 688 or.

106. "En el concurso de poesía en Bascuence anunciado por la Asociación Euskara, su pieza ha merecido el premio. Ya le habrán explicado porque no se lo dan. He remitido pues el makila, y la onza de oro al segundo en mérito..." Abbadia, 8 de agosto de 1879. BNP, naf., 21746, f. 332.

107. Ramon Artola (Tolosa, 1831 - Donostia, 1906). Iturgina, bere lanen artean: *Gipuzkoako probintziaren kondaira laster bat Españiako beste zenbait pasarerekin*. Donostia, J. Baroja, 1909.; *Sagardoaren graziya eta beste bertso asko*. Tolosa, Auspoa, 1961; *Ustez laguna detan eta beste bertso asko*. Tolosa, Auspoa, 1961.

108. BNP., naf, 21746.

gorde eta zabaltzeko, eta bere onesbideari ezaguera errespetotsu bat eman nairik, erabaki du datorren ilaren 7an itz-neurtzaen bilkida egitea, izan litekean otsandianarekin, zeinatarako Probintziako Diputazio edo Ekautuen bilguma txit geidiatiak ere eskeini duen bere laguntza euskal izkuntzari dion amodioagatik.

Eta festagiariak zeinaren buru naizan, jakinik berorrek dion naitasun aundia euskal-erriari, bere izkera ezitsu eta oituera zar eta gogoangarriai eta oroiturik gainera berorrek lenbiziko ondekidatu zituela gure artean orain dala ogei ta geiago urte, euskal-izkribatzaileen bilkida eta indar neurtze gisa onetakoak, erabaki du bialtzea berorri festa oen azalde bi, eta gurteskatzea batetan, errespeto guziarekin izkribatu onen bidez, festa oek onratu nai baditu ere berorren aurkearekin, bada egiazko atsegina izango lukete ortan, ala Bilguma, oek egitea erabaki duenak nola prestatu dituen festa-giariak.

Jaungoikoak gorde dezala berori urte askoz.

Jose Olano¹⁰⁹.

Ez zuen, ordea, Abbadiak, bere ohizko bidaiak zirela eta, bere presentziarekin "Euskaldun bersolari, izcribatzaile eta soñularien bilkida eta jostaguda" onratzerik izan.

Donostiako sarien berri zehatzik nahi duenak *Euskal Erria* errebitara jo dezake hala nola Ana Toledok euskal narrazioaren sorreraz egin lanera¹¹⁰.

Horrela bada hasiko dira 1879tik aurrera hiri eta herri ezberdinetan Lore Jokoak antolatzten. Adibidez, 1880an Begoñan, Beran, Donostian eta Maulen moldatu ziren. Abbadiak erein haziak euskal lurralde ezberdinetan indarra hartua zuen jada. Euskal Literaturaren Pizkunde Aroan sartuak ginen, hots, 1876tik 1936ra, bigarren karlistadaren amaieratik gerran zibilaren hasierara doan epean.

Ikusi dugu nola Iruñean 1878an sortu zuen Arturo Campionek *Revista Euskara* delakoa, berriki fac-similez emana¹¹¹, eta zeinen helburuen artean, *euskal literatura, egun ahantzia edo ezezaguna, lantzea zen*. Halaber, Fermin Herranek¹¹² Gasteizen bizi laburreko (1878-80) *Revista de las provincias éuskaras* sortu zuen; Donostian, Manterolak 1880an *Euskal Erria*, *Revista Vascongada* sortu zuen ondorengo asmoekin:

*A recoger y transmitir los rasgos peculiares de la vida propia de estas siete provincias, que forman lo que podemos llamar la HEPTARQUÍA EUSKARA, a dar a conocer su antiquísima lengua, su especial literatura, sus originales cantos y traducciones, su historia, sus leyes y sus costumbres, reuniendo cuanto de más interés, inéditos, agotados ya o poco conocidos de nuestros antiguos y más distinguidos escritores, y buscando el apoyo de cuantos prestan hoy culto y nombre a las letras bascongadas, para hacer así de nuestra revista un verdadero Album, un archivo manual de curiosidades del país, se dirijirán todos nuestros esfuerzos*¹¹³.

109. BNP, naf, 21748, f. 145.

110. Ana Toledo, *Domingo Agirre: euskal eleberraren sorrera*. Bizkaiko Foru Aldundia, Bilbao, 1989.

111. *Revista Euskara, 1878-1883*. Introducción y edición: Lola Valverde. 1996 - Edición fac-simil. Eusko Ikaskuntza.

112. Fermin Herran (Gesaltza, 1852 - Bilbo, 1908), zuzenbide ikasketak egin zituen eta idazle saiatua izan zen. Gasteizen *Revista de las provincias éuskaras* (1878) sortu zuen, eta Bilbon *La Biblioteca Contemporánea*, non garaiko intelektualen pentsamendua jaso zuen 62 liburukitan (1896-1902). Historia Akademiako kidea izan zen.

113. *Euskal Erria, Revista vascongada*. San Sebastián, Baroja, 1880, número 1, 15 de julio.

Eta lan honetan esku hartu zuten hala liberalek nola karlistek izpiritu zabal eta ideki batez, hiriari zegokion eran, eta horregatik esango du Julio Caro Barojak espreski, bere aitona Serafin bezalaxe liberal anitz izan zela euskaltzale eta euskal poeta¹¹⁴. Ez dago inolako dudarik, noski, Abbadia bibliofilo eta euskal- zaleak bozkarioz beterik hartu zuela Manterolaren errebistaren lehen alea eta berehala bidali ziola abonamendua.

Aldizkari euskaltzale hauen artean sar dezakegu ere 1885ean Bilbon Vicente de Aranak sortu *Revista de Vizcaya* (1885-89).

Mauleko festen egitaraua Donapaleukoaren antzekoa zedila eskatzen zion Abbadiak bertako alkateari, eta prest zegoela gainera, ehun libera gehiago eranstera, bana zitezen pastoralaren errejenta eta jokalarien artean, hala nola beste laurogei libera burdin jaurtikitzaila hoberenentzat¹¹⁵.

Begieux auzapezak, ordea, pilota partida ondoren oholtegia altxatzea ezinezkoa zela pastorala jokatzeko eta ez zuen Abbadiaren nahi osoa bete. Dena den, lehen aldiz, Poesiaren Bestak bere Zuberoan egiten zirela ikusi ahal izan zuen Abbadiak.

Berrito muga iraganen dute Bestek 188lean, baina oraingoan ez dira izango Nafarroan, Gipuzkoan baizik, eta Irunen, hain zuzen¹¹⁶. Abbadiak¹¹⁷ Genaro Echeandia, Irungo alkateari euskal bestak antolatzeko baimena eskatu zion gaztelaniaz idatzitako gutun batean, eta honek frantsesez erantzun baiezkua eman zion ohorea eskertuz¹¹⁸.

Jai ospetsuak izan ziren Irungoak. Pilota partidaz aparte, Bidasoan treneru estropadak ere antolatu ziren Azken Portutik Faisanen Uharteraino, andereen laisterka norlehenkak, etabar.

Hamazazpi lan aurkeztu ziren Euskal poesiaren sarira, eta bai hau (80 peseta) bai makila (ohi bezala Laborde Noguez jaunak eskainia) Biktoriano Iraolari¹¹⁹ eman zitzaion *Lore Igartua* poemagatik. Asociación Euskarak eskaini urrez gainztaturiko domina Antonio

114. Serafin Baroja, *Bertsoak, Pudente, Tormesko Lazarotxo, Kontuak*. Patri Urkizuren edizioa, Julio Caro Barojaren hitzaurrearekin. Donostia, Txertoa, 1988.

115. "je voudrais qu'on pût jouer une pastorale le dernier jour, et j'ajouterais alors cent francs à donner à l'auteur ou aux acteurs...", BNP, naf., 21746.

116. José Antonio Loidi, *Euskal jaiak. Fiestas Euskaras (1881)*. Irungo Udala, 1983

117. "Antoine d'Abbadie au Maire d'Irun

Juillet 27, 1881

Señor,

He sabido que está V. dispuesto á dejarme dar mis premios bascos en Irun cuando vuestra fiesta patronal el 8 de setiembre prójimo..." (BNP., naf, 21746)

118. Irun, 12 août 1881

Monsieur,

J'ai l'honneur de vous rémettre ci-joint le programme de toutes les fêtes qui vont avoir lieu à Irun avec votre bienveillant concours et celui de l'association vasque de Navarre..." (BNP, naf., 21747, f.269).

119. Biktoriano Iraola (Pasaia San Juan, 1840 - Donostia, 1919). Donibandar honek asto batez mugitzen zen mol-diztegia zeukan Donostian, eta hemen errebista eta bertso anitz argitaratu zituen: *Baserritarra, El thun thun, ...* Komedia, zartzuela eta bakarrizketa askotxo idatzi zituen: *Bi itxuak, Petra txardin-saltzallia, Ardita beti ardit, Ixkiña Mutrikun...* Antonio Zabalak prestatu edizio honetan aurki daitezke bere bertsoak: *Au poza senti det eta beste bertso asko*. Aspoa 243, Oiartzun, 1997.

Arzaki¹²⁰, bere *Iltzen bazaigu Ama Euskera Euskaldunak illak gera* poemagatik; eta ohorezko aipamena eta diploma Felipe Arrese Beitiari bere *Jaungoikua eta fueroak* lanagatik.

Euskal Herriaren Batasuna gaitzat hartzen zuen poemarentzat ere bazen saririk eta honen irabazlea Claudio Otaegi¹²¹ izan zen, *Elkar gaitezen denak napar Euskaldunok* poemagatik zilarezko domina eman zitzaion. Halaber, Felipe Arrese Beitiaren *Danok bat*, eta Ramon Artolaren *Euskal-erriaren elkartia* poemei ohorezko aipamenak eta diplomak eskaini zitzaizkien¹²².

Saran ospatu ziren berriro 1882an koplarien guduak, eta, gaia librea zelarik, Piarres Ibarrartek eraman zuen urrezko ontza *Ikhazkin mendian* kantarekin.

Bizkaian lehen aldiz 1883an antolatu ziren, eta politikaz salatuak izan ez zitezen jai hauek, ez ziren Gernikan antolatu Markinan baizik. *El Noticiero Bilbaino*, *Euskal Erria* eta *Revista Euskara*-k parte eman zuten xeheki bertan gertatuez. Sari pila banatu ziren. Hala:

Anton Abbadiaren sariak

- Poemarik eta hitz lauuko narrazio labur hoberenari (80 peseta)
- Bertsolaririk hoberenari (80 peseta)
- Txistera jokoan irabazleei (400 peseta)
- Txistera jokalarri hoberenari (80 peseta)
- Buruan marmita eramanez andere korrikalari azkarrenari (60 peseta)
- Bigarrenarentzat (30 peseta)
- Korrikalari arinenarentzat (60 peseta)
- Esetako behi ederrenaren jabearentzat (100 peseta)

Abbadie Anderearen saria

- Irrintzilari iaioenarentzat (80 peseta)

Laborde Noguez-en saria

- Makila eder bat poesia sariaren irabazlearentzat

Manuel de Murga saria

- Zilarrezko luma irakaskintzan Markina inguruan gehien saiatu den maisuarentzat

Manuel de Larrañaga eta Cia-ren saria

- Kobrezko pertz eder bat andere norlehenkako irabazlearentzat

120. Antonio Arzak (1855-1904) donostiar idazlea. Poemak, kontakizunak, eta kazetari lanak idatzi zituen, besteak beste. Bere bertso eta prosa lanak Antonio Zabalak bildu ditu berriki: *Idazlan-sorta*. Auspoa 233, Oiartzun, 1995.

121. *Klaudio Otaegi olerkaria (1836-1890)*. Patri Urkizuren edizioa, Etor, Donostia, 1991.

122. S.C., "Fiestas euskaras en Irún", *Revista Euskara*, T. IV, 258-268.

Rafael Minio alargunaren saria

1. Urrezko arrosa bertsotan idatzi lejenda hoberenarentzat

Peñafloridako Kondearen alargunaren saria

1. Arte obra bat "El Señorío de Vizcaya en sus relaciones con el rey D. Alonso el onceno de Castilla" gaiaz egin lan hoberenarentzat

Bizkaiko Diputaziaren saria

1. Arte obra bat Bizkaitar ospetsu bati buruzko biografia hoberenarentzat

Markinako udaletxearen saria

1. Arte obra bat bertako historia hobekienik idazten duenarentzat

Bizkaiko Diputazioaren saria

1. Euskal kantak hobekienik kantatzen duen abesbatzarentzat 300 errial

Festa eratzailen saria

1. Txokor bat zortzikoan edo aurrezku dantzan egingo duten hirurogei urtetik gorakoen arteko dantzari hoberenarentzat.

Beraz, hemezortzi sari orotara. Literatur arloan, Karmelo Etxegarai¹²³ izan zen irabazlea, *Zertako* poemarekin, eta urrezko arrosa bat eman zitzaion Felipe Arrese Beitiari bere *Jaungoikoaren probidentzia* titulu bezala zeramatzaten bertsuengatik. Bertsolarien artean Pedro Elizegi "Pello errota" asteasuarra¹²⁴, eta Peru Markina-Etxeberrikoa gertatu ziren sarituak.

Biografiaren artean Mazarredo jeneralari Klaudio Otaegik eskainitakoak ere saria jaso zuen. Halaber Joakin Larreta tolosarrak aurkeztu zuen ipuin bat, *Mozolua noiz ezker dan ontza*¹²⁵, titulupean. Baditu honek beste hitz lauzko lantxo zenbait sarituak izan zirenak: *Alonsotegiko zubiya*, *Miluzeko zubiya* eta irakurgai bat Ernion euskaldun eta erromatarren arteko borrokez¹²⁶.

123. Karmelo Etxegarai (Azpeitia, 1865 - Gernika, 1925), Gipuzkoako Diputazioan artxibo-lanetan hasi zen (1882- 85), eta Bizkaia, Araba eta Gipuzkoako kronikari ofiziala zelarik Gernikara aldatu zen (1895). Historia Erret Akademiako partaide izan zen. Poema eta itzulpen zenbaiten egilea ere badugu. Bere anaia Bonifazio Etxegarai (Zumaia, 1878 - Durango, 1956), Gernikako epaile eta Madrideko Justizia Epaitegi Goreneko Idazkari-orde izan zen (1910). bere anaia Karmeloren lekua hartu zuen Euskaltzaindian (1925-26). Lan anitzen egilea, horien artean aipagarri: *Historia del País Vasco, Lucha de idiomas en Euskadi y en Europa...* Ikus bi anaien bibliografiarako aipatu Ana Toledoren liburua.

124. Antonio Zavala, *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz (1840 - 1919)*. Auspoaren Sail Nagusia. Tolosa, 1992, 451 or.

125. BNP, FCB, nº 165, f. 237-241.

126. Domingo Agirre et al., *Leiendak (1879-1891)*. Ana Toledoren edizioa, Klasikoak 40, Donostia, 1990., 213-235.

Badirudi Gasteiztik José Cola y Goiti¹²⁷ gazetari eta arkeologo ospetsuak Abbadiari igorri gutunaren arabera¹²⁸ 1884ko Koplarien Guduak Llaudion ospatzeko zirela, baina azkenean Saran ospatu zen berriro. Piarres Ibarrart izan zen saritua, *Uso saretan atzemana* kantua zela eta, zein Uztaritzeko xantreak kantatu zuen.

Hurrengo urtean ere, hau da, 1885ean, Abbadiaren jokoak lekuz aldatzeko asmoek potto egin zuten, ezen Etxarriko herria baitzeukan begiz jota, baina Zipriano Jauregi alkateak kole-
ra gaitza zela eta ezinezkoa adierazi zion¹²⁹. Hona Abbadiak frantsesez eta euskeraz idatzi zion gutunaren euskal zatia:

Jaun Auzapeza,

Hemen gainean frantsesez galdegiten dautzut zure herriak nahi duenez ene sariak aurten errezibitu. Fresak herriaren partez gehienik 50 pesetak izanen dire, bertze guziak ene gain.

Nahi edo ez, othoi, ahal bezain laster niri erreposta bat igorrizadazu Parisarat, rue du Bac 120.

Ene goraintzekin

Anton Abbadia¹³⁰.

Eta ohi bezala Saran ospatu ziren, baina ez zen saririk eman, ezen Duvoisinek zioenez¹³¹ emaitza pobrea izan zen bai kantitatez eta bai kalitatez, Agustin Etcheverryren *Maria Alegiazkoa* kanta, sentimenduz betea izan arren eta hoberentsuena, ez zela saririk jasotzeko gai.

Urnieta izan zen 1886ko Lore Jokoen kokalekua. Herriko udalaren izenean Juan Bautista Ichaso-Asu alkateak zinatzen zuen Azaldea edo oinarriak honakoxea zioen gaiei buruz:

Lembizikoa. Zeruko martiztien buru done Miguel Goi-aingeruaren onran eta alaban-tzan itz neurtuak gichienez 16 biurtze.

II.ena. Beingoan aberastutzeko asmoarekin Amerikara dijoazen euskaldunak daramazkiten desengainoak, gazte sentsu gabeak ara joatetik atzeratu ditezten: itz neurtuetan edo larrietan; eta izan ditekondaira oraindik argitaratu gabea, norbaiten gertakariak, edo gis onetako beste izkriburen bat.

III.ena. Euskara, lekuan lekuko itzkerakiñ bere oñ onean gordetzeko; ¿zein dira Euskal-Errico buruzayak, au da, Diputazioak eta ayuntamientoak artu ditzatekean neurri-rik errazen eta egokienak? Itz larrietan.

127. Jose Cola eta Goiti, *Euskal Naparren Joaera edo Emigrazioa*. (Itz., Marzelino Soroa) Inazio Mujikaren Edizioa. Euskal Klasikoak13, Labayru, 1988.

128. Vitoria, 14 de julio de 1884. Carta a Antoine d'Abbadie (BNP, naf., 21747, f. 261)

129. "... qu'en les circonstances actuelles entourés comme nous sommes de toutes partes par le choléra il est impossible...", Echarri-Aranaz, Août 10/85. Lettre de Cipriano Jáuregui à M. Antoine d'Abbadie (BNP, naf. 21748, f. 301)

130. "... En cas d'un refus, dont je ne vous demanderais pas le motif, je vous prie de me répondre...", Lettre à Mr. le Maire d'Echarri, Paris 1885, juillet 15. (BNP, naf., 21746)

131. "Concours de poésie de 1885. Pauvre pour le nombre des concurrents, plus pauvre, si c'est possible, pour le rapport de la valeur des compositions...", Lettre du capitain Duvoisin à Antoine d'Abbadie (BNP., naf., 21747, f. 281)

Urnietako Euskal Festak ederrak izan ziren, bertara Abbadié Duvoisinekin iritsi zen irailaren 28an, eta *Euskal Erria* errebistako zuzendari zen Arzak jaunak lagundu zituen Donostiatik Urnietaraino. Sari Irabazlea, hau da, makila eta *ontzurrea* irabazi zuena Karmelo Etxegarairen *Menditar baten kantua* izan zen, zeinen lehen bertsoak honelaxe dioen:

*Urruti nere menditik
Joan nintzen dirutu nairik,
Urrutiyetan laster biotza
Naigabez erdibiturik,
Gelditu nitzan tristerik,
Pake santua galdurik. (321-l)*

Arzak Abbadiaren andereari egin frantses solasaz, antzeztu Marzelino Soroaren *Barrenen arra*, eta *Anton Kaiku* komediatxoez, Pello Errota, Udaregi, Juan Jose Elizegi eta Juan Jose Ugaldereen saioaz, hala nola beste ospakizunez mintzo zaigu *Euskal Erria*¹³², eta frantsesez ere Paul Labrouchek¹³³ eman zuen jaialdien berri.

Azkainen ospatu ziren 1887ko Poesia Bestak, eta bertan Jose Artolaren *Erbi inudea eta katua* "ipuiak" edo alegiako bertsoek merezi izan zuten saria. Ohorezko aipamena Gratien Ademaren *Beharra eta Ahala* kantari eman zitzaion.

Nafarroako Auritz herria begiz jo zuen 1888rako Abbadiak, baina bertako alkate Miguel Maria de Massok gonbiteari erantzun zionez¹³⁴, ez zen momenturik egokiena horretarako eta, beraz, Kanbon ospatu ziren.

Duvoisinen ustez ez zen aurkeztu saririk merezi zuen poemarik eta eman gabe, hutsik gelditu zen saria. Halere bestak dotore antolatu ziren bertan Abbadié eta Lavigerie kardinala¹³⁵, Baionako seme ospetsua, Afrikako esklabotasunaren kontrako aintzidaria pilota partidak eta beste jokoak ikusten egon baitziren¹³⁶.

Dibarrart, Lasteyric, Irissarry eta Marianne Hargain¹³⁷ izan ziren bertsolariak. Hirurek eskatzen zioten Marianneri ezkontza baia, eta honen erantzun ziridunek badirudi entzulego osoa xarmatu zutela.

Ez zen faltatu ere hitz lauuko testurik. Adibidez, Markos Latasa donostiarrak idatzi *Hendaiako Monsieur Pelloten abotik nik aditutako historia farragarria*¹³⁸, eta Laurent

132. *Euskal Erria*, 1886, II, 289-293.

133. Paul Labrouche, "Les fêtes basques d'Urniet", *Revue des Basses Pyrénées et des Landes*, Paris, 1886, Vol. 3, 427.

134. "... que no consideran éste el momento más oportuno para la realización del proyecto...". Alcaldía constitucional de la villa de Burguete, 13 de agosto de 1888. Carta al sr. Don Antonio d'Abbadie. (BNP, naf., 21748, f. 124.)

135. Charles Martiel Lavigerie (Baiona, 1825 - Aljer, 1892), Larresoron eta Parisen burutu zituen ikasketak. Ekialdeko Eskolen Elkartearen zuzendari izan zen, Aljerko artzapezpiku (1867), Aita Zuriak (1868) eta Afrikako Ahizpa Misiolariak (1869) kongregazioak sortu zituen. Kardinala (1882), esklabotza deuseztatzearen aldeko ideia Europa osoan defenditu zuen (1889an Bruxelles-eko Biltzar antiesklabista). Leon XIII.aren eskariz Frantziako errepublika eta Elizaren aldeko harremanak hobetzen saiatu zen.

136. "Fiestas éuskaras en Cambo", *Euskal Erria*, T. XIX, 1888, 313.

137. Marianne Argain kanboarrari buruz eta Aña Etxegaray Aña "Debrua" hazpandarrak ikus: Piarres Charritton, *Pierre Broussain. Sa Contribution aux études basques (1895-1920)*. CNRS, Paris, 1985.

138. BNP, naf., 21748, f.446-448.

Diharassarryk idatzitako *Lilluratua (Eskual-herriko gazterari)*¹³⁹, benetan testu ederra baina tamalez ez zena orijinala, Intxauspek zioenez¹⁴⁰.

Donesteben ospatu ziren 1889koak, Narbarteko apeza zen Jose Maria Lakoizketa¹⁴¹ izan zuelarik bitartekari Abbadiak. Wenceslao Zubiburu, bertako alkateak pozik hartu zuen gonbitea eta Abbadiari gonbitea pasatu zion esanez herrira etor zedin egun bat edo bi lehenago gogoko zitzakeen ikerketa astronomiko eta magnetikoak ere egin zitzaizkien¹⁴².

Klaudio Otaegik irabazi zuen lehen saria *Amerikatik* izeneko kantagatik, eta ohorezko aipamena Ramon Artolari *Eguzkiyaren sarrera*-gatik eman zioten.

Maule izan zen berrero, 1890ean Koplarien Guduen kokaleku. Bertan parte hartu zuten hego eta iparreko poeta eta koblariek, eta Oxalde zaharrak, jada 76 urte baitzituen, honako bi ohartxoak igorri zizkion Lamaignère¹⁴³ jaun inprimatzaileari bi poemekin (347-8) batera:

Bidarrai, 7, 1890

a) *Kantu hok igortzen dauzkitzut Mauleko Concours hortako.*

b) *Hok jujatu behar tuzten jaunak othoizten tut hunkiño bat eman dezaten huntako makurren gainean.*

Zure zerbitzari

Jean Baptiste Oxalde

Bigarren ohartxoak (b) gerora kanta famatu bilakatu denaren bukaeran errepikatzen du. Hemen Oxalde eta Etxahunen arteko elkarrizketa aipatzen du eta honela hasten da lehen bertsoa:

*Agur adiskidea, Jainkoak egun on,
Zer berri den errazu zuk othoi Xuberon,
Ezagutzen duzuia Barkuxen Etchahun,
Halako koplariarik ez omen da nehon
Bisitaz joan nindaite ez balitz hain urrun. (348-l)*

Irabazlea Felipe Casal¹⁴⁴ donostiarra izan zen, ordea, bere *Gure euskara maita dezagun* izeneko poemagatik. Iritsi zenean Maulera eta jokoen hasieran Souhy jaunak besteen artean honako ongietorriko bertsoak eskaini zizkion:

139. BNP., naf., 21747, f. 451-454

140. "... Il y a un charmant récit en prose qui vient certainement de M. Diharassarry, curé de Cambo, mais il n'a pas le mérite de l'originalité, il est emprunté aux Annales de la Propagation de la Foi..." Lettre de l'abbé Inchauspe à Antoine d'Abbadie. Bayonne, 24 septembre 1888 (BNP, naf., 21748, f. 44)

141. Jose Maria Lakoizketa (Narbarte, 1831 - Elbete, 1889). Botanikaren inguruko liburu eta katalogoak idatzi zituen. Frantzia eta Espainiako sozietate botanikoetan partaide. Bere obra ezagunena: *Diccionario de los nombres éuskaros de las plantas en correspondencia con los vulgares, castellanos, franceses y científicamente latinos* (1888).

142. "... Je trouve très bien que vous veniez ici un jour ou deux avant les prix; pour faire vos observations astronomiques et magnétiques...". Lettre de Wenceslao Zubiburu à Antoine d'Abbadie. Santesteban, 7 de julio de 1889 (BNP., naf.21748, f. 468)

143. Alfred Lamaignère (1843-1906), *Le Courrier de Bayonne*-ko zuzendaria izan zen. Ikus: Antoine Foltzer, *Autour d'un centenaire bayonnais 1829-1929*. Imprimerie du courrier, Bayonne, 1929.

144. Felipe Casal, Pablo Casal eta Maria Casal, donostiar anai-arrebak, Euskaldun-Fedea antzezaldetako partaide ziren.

*Hunki jin ziradiela, Mus de Abbadia,
Urustoi herri xipiko arraseme handia! (350)*

1891ean Bizkaiko lurreta herrian ospatu zen Euskal jai-aldia. Julian Unamunzaga, bertako alkateak zinatzen zuen egitarauak honako sarreratxo zeraman:

Yurretaco Batsarreco jaunac, abegui onagaz artuta On Antonio Abbadie, euskal zale arguidotarrac, Aitorren berbaera aberatza zabaldu, astertu eta lautzezo esqueñi deutzan laguntasuna, erabagui-dau erri onetan ospatutea euskal jai-aldi otsandico batzuc, Euskalerrico seme maite arec azcoren poz ta atzeguiñ andiaz urteoro eguiten dituzanac, arturic orretaraco Doniel Goiaingueru gure Patroe andiaren jaya. Gogo one-gaz guertau dituz letra-guda, indar-neurtze eta ascartasunezco joco batzuentzat sari-on ederrac arguitara emoten diranac.

Badirudi arauak zehatzago zirela oraingoan, ezen bertsoak alde batetik zihoazen eta egile izenak gutun baten barnean estalirik eta bigarren egunean, irailaren 30ean epai-mahaiak, "urratuco dira eguillen izenac gorderic dagozan carta estalguiac", hots, jakinaraziko zuen nor zen garailea. Hau Frantzisko Lopez Alen donostiarra gertatu zen bere *Duvoisin jaunaren oroimengarriari* tituluko poemagatik. Hil berria zen, beraz, Jean Pierre Duvoisin (Ainhoa, 1810 - Ziburu, 1891), Bibliaren euskal itzultzailea, *Laborantzako liburua* (1858) euskeraz idatzi libururik ederrenetakotzat eman izan dena, eta Koplarien Guduetan hasieratik hil arteraino Abbadiaren zutaberik nagusiena.

Bizkaieratze hau zela eta Resurrección Maria de Azkue gazteak honako gutuna idatzi zion euskaraz Anton Abbadiari:

Bilbotik, urriko 5garren egunean 1891

Abbadie-ko Antoine Jaunari,

Atsegin edo laket andienaz izkiraturen diardut, eta alkar biok ezautu ezarren bion adizkide on baten bitartez zuganatutea naikoa izango daila uste daut, zuk nire itz edo berba moteltšo onek abegi onaz irakurteko.

Durangoko urira ta lurretako Eliz-aurrera zentorzala jakin neuanetik zu ezautua zugaz ele edo autu bat eukiteko gurari bizi ta sutsua neukan. Zu ikustera ez durangoratutea ez tšartzat artu! ene biotzeko okertzat ezeizu euki; bion adizkide Edward Spencer Jaunak aoz autortu ta erakutsi dautsu nik orain lumaz ezin dautana.

Aitatu ta izendaturiko adizkide onegaz nire Euskal-izkindea¹⁴⁵ deritsan liburua biralduko dautsut: zeuk ondo dakizunez doaiak eta gomutagarriak euretan baino eskinten dauzanon aleginean ta biotzean obeto neurtu doaz. Nik zuri eskiniko dautsutan liburua azaletik polita ta andia izanarren errai tšatšarrak daukaz; bere tšatšartasuna ornidu ta osatu bei nire biotzak, eta nire biotza ta alegina neurri tšatšarra balitzaz euskara-zale ta euskaldun-zale bati itz egiten diardut, eta berak nik egiten ezdakitana parkatuten jakingo dau.

145. Resurreccion Maria Azkue (Lekeitio, 1864, - Bilbo, 1951). Euskarazko lehen katedra lortu zuena Bilbon (1888), Euskaltzaindiaren sortzailea (1918) eta euskal liburu anitzen egilea: *Euskal Izkindia-Gramática Euskara* (1891), *El euskera o el Baskuence en 120 lecciones* (1897), *Diccionario Vasco-Español-Francés* (1905), *Cancionero popular vasco* (1918), *Gipuzkera osotua* (1935), *Euskalerrriaren Yakintza* (1935-47)...

Gogo onaz atseginez ta pozik irakurriko neuke zuk nire liburutxo orren ganean daukazun eritsia edo ustea.

Agur, Jaungoikoak bere eskuetan euki zaiala. Zure serbitzari zintsua

Azkueko Resurreccion Maria, abadia

Nire bizi-tokia:

Resurreccion Maria de Azkue, Pbro

Campo Volantin

Bilbao¹⁴⁶.

Gutxienez hamasei lan aurkeztu ziren lurretako poesia sarira, bizkaitar, gipuzkoar, lapurtar eta basanafartarrak. Baina, 1879az geroztik Donostiako eskola nabarmentzen hasia zen eta oraingoan, esan bezala, Lopez Alenek¹⁴⁷ irabazi zuela.

Benetan festa handiak izan ziren 1892an Donibane Lohizunen ospaturikoak. Iragarkiak Donibane Lohizuneko irudi xarmant baten pean honakoa zioen:

Ville de Saint-Jean-de-Luz / Les 21, 22, 23 et 24 Août 1892 / Grandes Fêtes (Zazpiak Bat irudia) Internationales / Du Pays basque / Organisées par la Municipalité / Sous le patronage de M. Antoine d'ABBADIE (de l'Institut) / & / Traditions Populaires / Poésies et Improvisations / Parties de paume / Danses nationales et traditionnelles / Pastorale / Mascarade / Chansons Populaires / Jeux.

Eskualduna aldizkariko "Euskaldun Bestak" titulupean¹⁴⁸, besteak beste, honakoa irakur zitekeen, gure ustez Ademak idatzirik:

"Zazpiak bat", horra zer dugun irakurtu Donibaneko Eskualdun buruzagiek beren etche aintzinetan, bai eta ere bide bazterrean, bi aldetarik hedatuak zituzten bandera ederretan. Zazpiak bat: hitz berak ziren ageri, erran badezaket, harat-hunat elgarri irriz eta agurka bezala zabiltzan begitharte alegera guzietan. Zazpiak bat: ez zen han bertze solasik.

Zazpiak deitzen zituzten bertze orduz, eta oraino ere hor dira bethi bizi, zoin beren eremuetan, zoin beren jite, itchura, mintzaira, aphaindura eta bertze egite bereziekin, Eskual-herriko zazpi eskualde edo probentzia zaharrak, lau español eta hiru frantses. Hekien izenak orotan ezagutuak dira. Espainiko aldean: Guipuzkoa, Navarra, Biscaya eta Alaba. Frantziako aldean: Chubero edo Ziberoa, Basse-navarre eta Laphurdi.

Zazpi probentzia horien banderak han ziren, oihal ederrez eginak urhe eta zilharrez ederki aphainduak, bakhotcha erdi erdian bere izenarekin herri bereko gizon batek ekhartzen zuela, haga urheztatu batetarik dilindan. Eder zen ere ikhustea, alde orotarik multzoka ethorria, Español eta Frantses Eskualdun gazteria; oroz gainetik Chuberotarrak; eta Guipuzkoano haur gazte batzu, churi gorritz behti, bi egunez jende guzia choraturik atchiki baitute.

146. BNP, naf. 21746, f.344

147. Frantziako Lopez Alen (Donostia, 1866 - 1910), poeta eta pintorea, Udal Liburutegiko zuzendari, hiriko kronikari... Bere obren artean ezagunenak: *Galería de guipuzcoanos ilustres* (1898), *Memoria artística de San Sebastián y descripción de las Fiestas Éuskaras* (1906),...

148. "Euskaldun Bestak", *Eskualduna*, nº 274, 1892-VIII-26.

Donibanen bildu guztiei Abbadiak eginiko solasaren zati bat badakar ere *Eskualdunak*, zeinen laburpena honelakoxe izan zen, beti, ohi bezala Afrikako bere bidaia oroitzuz:

Herritar maytiak:

Laissez-moi vous parler des pasteurs Saho chez qui j'ai vécu en Afrique. Cette nation [...]

Chers compatriotes, joignez vos voix à la mienne déjà bien éteinte et crions tous ensemble: Zazpiak bat! [...]

Charles Petit-ek, Abbadiari ohorezko makila emateko agindua zeukanak ere bere hitzal-ditxoa izan zuen, eta beste zenbait hitzen artean honakoak bota zituen:

...Oui, "Zazpiak bat", tel est le rêve de notre vie, à nous, les Basques de coeur et de race, qui n'avons d'autre idée de patrie que les montagnes qui nous entourent.

Et qui sait? Déjà, le torrent populaire gronde très distinctement sur l'Europe entière et menace de tout emporter.

Qui sait si les "Zazpiak bat" ne surgiront pas un jour avec leurs frontières naturelles, avec les frontières qu'elles tiennent de la main de Dieu?

"Zazpiak bat" des Pyrénées à l'Adour!

"Zazpiak bat" des Pyrénées à l'Océan! ...¹⁴⁹

"Zazpiak bat" etorkizun handiko oihua izan zen. Alde batetik, jada lurretako jokoetan idazle ezezagun batek soneto akrostiko bat aurkeztu zuen ZAZPIAK BETI BAT deiarekin. Dena den, koplarien gudu honetan irabazle Biktoriano Iraola gelditu zen, *Gaisuak*, izeneko poemaz. Zuberoako jokalariek jokatu zuten pastorala, Heguiaphal Xohütako errejentak zuzendutako *Abraham* izan zen.

Azpeitian antolatu ziren 1893ko Euskal Festak, irailaren 3, 4 eta 5ean. Prestakuntzan Juan de Anton alkateak eta Agustin de Jauregi apezak parte hartu zuten besteen artean. Zestoa herrian zezenketetara jende gehiegixko inguratzen zela eta hautatu zuen San Inazioen jaioterria. Oraingoan epai-mahaiko Gratien Adema eta Basilio Joannategi¹⁵⁰ beneditarra izan ziren. Poesia gaia librea zen eta irabazlea berriro Frantzisko Lopez Alen gertatu zen *Ama baten otsa seaskaren ondoan* poemarekin, bigarrean saria Felipe Casali bere *Ama euskara eta bere umiak* lanagatik. Bertsolaririk ere ez zen faltan izan eta parte hartzaileen artean Pello Errota, Joxe Bernardo eta Juan Joxe Alkain izan ziren. Abbadiak egin bidaia eta bertako gora beheren berri Charles Bernardou-k eman zigun¹⁵¹.

Ademak "Zalduby" ezizenez Azpeitiara aurkeztu kantak honako *Koplargetako guzien erre-faua* zeukan:

*Zazpi Eskual Herriek bat egin dezagun,
Guziak bethi bethi gauden gu eskualdun. (376-l)*

149. C.H., "Les fêtes de Saint-Jean-de-Luz (Derniers échos)", *Eskualduna*, Baiona, 1892-IX-23.

150. Basilio Joanategi (Isturitze, 1837 - Lazkao, 1921), Belokeko beneditarren etxean urte anitz iraun zituen eta euskal libururik ere idatzi zuen: *Ehun bat Sainduen bicitzea* (1876), *San Benoaten bicitzea* (1887)...

151. Charles Bernardou, *Azpeitia. Les fêtes euskariennes de septembre 1893*. Bayonne, 1894.

Donibane Garazin lehen aldiz 1894ean moldatu ziren, eta bere zahartzaroan egon arren oraindik beti bezain eragile itsasoaz bestaldeko euskaldunei deia egin zien Abbadiak parte har zezaten heien bertsoekin eta Los Angeles-eko *Eskual-Herria* berriketaria zuzentzen zuen Goytiño abokatuak honakoxe euskarazko gutunaz erantzun zion:

Los Angeles, bat maihatzaren 1894a

*Murde Antonio Abbadikoa
Urrugne*

Ene jaun errespetagarria,

Eskerrak biurtzen daizkitzut igorri nauzun diruarentzat eta zure primako abisuarentzat. Gogotik emanen dut ene berriketari eskualduneari eta segur naiz gure Ameriketako herriarrek adituko dutela boza eta igorriko Donibaneko phestetarat zonbeit bertsu eder.

Ene phartetik denborarik balin badut ene komendioko jarriko naiz bertsularien herriusekan eta Mr. Lasseri helaraziko ditut ene bertsuak. Ez da zuzen baizik berriketari moldazailiek eman dezagun etsenplua: gisa hortan erakhutsiko dugu zer amodio kasta ekhartzen dugun gure mintzo paregabeari.

Akhabatu gabe letra ttipi hau nahi zaitut, Jaun errespetagarria, fagore bat galdatu. Aditu dut zonbeit liburu eder argitarazi ditutzula euskara mintzoaren ezagutarazteko eta liburu horiek nahi nituzke eskuratu.

Hortakotz, Jaun errespetagarria, arren egin dazu fagore erraiteko nola deitzen diren (liburu horiek) eta non eta zer preziotan erosten ahal ditudan.

Ene aldetik, jauna, zerbeit fagore egiten ahal badut orhoit zite bethi zure zerbitzari naizela.

J.P. Goytino.

N.P. Before the expiration of the [...] "Eskual Herria" we'll have more than 3.000 subscribers in America alone and aboute 500 in the Basque land¹⁵².

Abbadiak Donibane Garaziko Larralde jaun auzapezari eskatzen zion sarietarako ematen zituen 1130 liberen truk euskaraz idatzi afixa, iragarkia nahi zuela gorde. Halaber Ademari idatzitakoan zioen¹⁵³, ez zuela nahi gerta zekion aurreko urtean bezala Azpeitian, non banaizteko zituen kanten berrehun ale jokoak iragan eta ondoren iristea.

Gaia Iraulza frantsesaren garaian Madalen Larralde saratarrak pairatu zuen heriotza zen eta euskaraz Abbadiak egin iragarkia *Euskal Erria* errebistak honelaxe jaso zuen:

EUSKAL FESTAK DONIBANE GARAZIN

Otoiztu dut Sarako jaun erretora, jakiteko zerbeit. Madalen Larralde Sarako martiraren gainean, zoinaren istorioa ezagutua baita arras ongi Sarako jendez. Jaun erretorak egorri nau lan ori.

152. BNP., naf., 21748, f. 467.

153. "... Je désire bien n'être pas en retard comme l'an dernier où les 200 ex.s à distribuer pendant les jeux ne m'ont été remis qu'à mon retour d'Aspeytia [...] S'il n'y a pas une bonne pièce, je renverrai le concours à l'an prochain, car il ne vaut pas la peine de couronner de mauvais vers..." , Lettre d'Antoine d'Abbadie à Monsieur l'abbé Adema, chanoine, 1894-VII-30 (BNP., naf., 21746)

Ene primak emanak izanen dire Donibane Garazin, buruilako illabetian. Orok suyeta bera izanen dute, au da: MADALEN LARRALDE SARAOK MARTIRAREN ISTORIOA. Chuchen den bezela primak izanen dituzte obekiena istorio ori presentatzen dutenek.

Lan oriek errezebituak izanen dire Lasserren imprimerian, Bayonan, Gambetta-ren karrikan, uztailaren leen arte.

Aditu dut Askaindar baten ganik neskatcha ori Magnificat kantatuz zuala gillotinarat. Sarako jaun erretorak eta bertze frangok erran dute kantatzen zuela Salve Regina. Menturaz biak kantatzen zituen. Guzien gainetik neskatcha eskualdun ori izan da martirak bezen andi, zeren naiago izan duen il, ezen ez gezur tipi bat erran.

Badakite guziek Eskualdun gizonak fechoak direla; bainan nai nuke jakin dezaten ere, Eskualdun emazteak fechoago direla.

ANTUN ABBADIA, Subernoarra¹⁵⁴.

Ademari idatzi gutunean Abbadiak zioen ez baldin bazen kanta onik aurkezten hurrengo urterako utziko zuela saria, zeren ez baitzuen merezi saritzea bertso txarrik. Halere, lan mordoxka aurkeztu arren ez ziren izan lanak epai-mahaiaren gogoia asetzeko lain eta hutsik gelditu zen Abbadiak Haristoy Ziburuko apaizari idatzi gutunaren arabera¹⁵⁵. Beraz, zuzendu beharra dago eman ohi den albistea, zeinetan esaten den Baigurako bi-Artzain delakoak, hots, Laurent Diharassarry, Ortzaizeko apezka eta Daguerre Irisarrikoa izan zirela lehen sariaren irabazle.

Abbadia, noski, urte horretan, hots, 1894ean Donibane Lohizuneko udalak antolatutako zituen festetan parte hartu zuen, egitarauak zioen bezala, Serbiako erregina Nathalie-rekin batera¹⁵⁶. Poetentzat gaia hau zen: Euskal-herria, bere usaia eta libertade zaharrak. Lehen sariaren irabazleak ezezagunak gertatu ziren Bi Eskualdun bezala zinatzen baitzuten, baina aipamenik izan zuten bai Bonifazio Etxegaraik, bai Piarres Ibarrartek, bai eta Joanes Oxaldek. *Aymonen lau semeak* izeneko pastorala ere jokatu zuten zuberotar antzezlariek.

Benetan interesgarria deritzot 1895eko uztailaren 26an Abbadiak sortu zuen Fundazioari, non Zientzia Akademiari ematen zizkion bere jauregi, lur eta beste zenbait gauzaren artean ezartzen zuen baldintza hemen adierazteari, zeren ikusten da argi eta garbi Frantziako erakunde hori zorretan dagoela euskal hizkuntza, literatura eta, beraz, kulturarekiko:

154. *La révolution française dans l'histoire et la littérature basques du XIXe siècle*. Sous la direction de Jean-Baptiste Orpustan. Izpegi, Baigorri 1994, 280.

155. "Monsieur le Curé, Ne me rappelant pas au juste ce que je vous ai écrit, il y a un mois, sur le Concours de vers basques à St.-Jean-Pied-de-Port, je viens vous prier d'annoncer dans la prochaine livraison de vos études que la plupart des juges ayant écarté toutes les pièces envoyées cette année-ci, le même sujet de Madeleine Larralde est donné pour l'année prochaine où les prix seront distribués en Navarre...Abbadia, Hendaye, 19 décembre 1894". Lettre d'Antoine d'Abbadie à M. Haristoy (*Études historiques et religieuses du Diocèse de Bayonne*, 4ème année, 1895. Pau, Imprimerie Vignancour, 1895, 48.)

156. "...Hiriko kargudunen barrera ederretan, lehen lehena zen Natalia Serbiako erregina, jaun Antonio Abadiren sahetsean. Erregina honek aurthen dianagusitu ditu lau egunez Donibaneko eskualdun bestak", (*Eskualduna*, 1894-IX-31)

Acte authentique, en date du 26 juillet 1895

*L'Académie devra consacrer chaque année, comme M. et Mme d'Abbadie le font actuellement, une somme de onze cent francs à des distributions des prix pour les joues et surtout pour la langue basque, dans les pays avoisinants*¹⁵⁷.

Euskal-festak Beran antolatu ziren 1895ean abuztuaren 3, 4 eta 5ean. Egitarauak honelaxe zioen larunbatez ospatu behar ziren lehen eguneko eginkizunez:

*Mesa nagusi onduan izango da Fuegoen Plazan saria eraman duan izkribuaren irakurtza. Izkribuau da Larraldeko Madalen Sara-ko alabaren eriotza; 50 edo 60 bersotan samurtasun andi batekin esaten duana. Bersorik ederrenen egilleari emango zaizka 80 franko urretan eta euskal makill eder bat*¹⁵⁸.

Tamalez, urte horretan ere, makina bat koplari eta bertso aurkeztu zen arren (Duhaldebehere, Mariana Hargain, Piarres Ibarrart, Frantzisko Santisteban, Pedro Mari Otaño¹⁵⁹....) ez zen saririk eman.

Eta 1896an, hirugarren aldiz Mauleko bestetan poesia gaitzat Madalen Larralde ukan zuten olerkariak. Lehen saria Laurent Diharassary Ortzaizeko erretorearentzat, bigarrena Felipe Arrese Beitia Otxandianokoarentzat eta hirugarrena Frantzisko Lopez Alen donostiarrentzat izan ziren. *Eskualduna* aldizkariak honelaxe ematen zuen besten berri:

Behinere baino ederrago izan dire aurthen beraz besta hoik Maulen. Bazen han pilota partida ikhugarririk; ba eta koplari ernerik; asko eta asko jostagailu zahar, Eskualherrian baizik ezagutuak ez direnik.

Orotako orhoitzapenik ohoragarriena eta iraunkorrena besta hoitan izaten da Eskualdun koplarien prima. Badire han berean edo zoin solas-gei hartu-eta, mintzo direnak; zoin hobeki. Badire aitzinetik artharekin egin koplak batzu igortzen dituztenak. Aurthengo koplak geia zen, d'Abbadie jaunak berak hautaturik emana.

Ja hirugarren aldia zuen eskualdun besta hoitakotzat Madalen Larralde Saratar neskatxa gazte zenaren laudorioak behar zituztela koplariak egin. Lehen bi aldietan agertu koplak jaun jujeek ez aski eder atzemanik, berriz emana zen solas-gei bera, prima irabazi uste zuketenen eskuetara.

Oraikoan hiru irabazle agertu dire: frantses bat eta bi espagnol; frantsesak ukhan du lehen prima, ehun libera eta eskualdun makhila eder bat. Bi espñoletarik batek bigarren prima: ehun libera; bertzeak bardin, ehun libera, hirugarrenarentzat.

*Lehen prima irabazi duen frantses eskualduna da Orzaizeko jaun erretora, Diharassary, Sarako semea*¹⁶⁰.

Anton Abbadia 1897ko martxoaren 19an hil zen Parisen, Imad Ahmad XVI. mendeko konkistatzailearen ixtoria kontatzen duen *Futhuh el-Habach* eskuzkribua arabetik frantsesera itzultzen ari zelarik. Baionako *Le Courrier*-ek eman zuen albistea, esanez Euskal Herriak bere

157. Pierre Gauja, *Les fondations de L'Academie des sciences (1881-1918)*. Imprimerie de L'Observatoire d'Abbadia. Hendaye, 1917, 429.

158. BNP, FCB, n° 166, f.24()

159. Pedro Maria Otaño, *Bertso guziak*. Antonio Zabalaren edizioa. Auspoa, Oiartzun, 1994.

160. *Eskualduna*, n° 482, 1896-IX-11.

semerik jakintsuen eta famatuenetarikoa galdu berri zuela eta bere gorpua Hendaiako bere Abbadia jauregian hobiratu behar zutela¹⁶¹. *Eskualduna* aldizkariak ere hiletaren berri eman zuelarik, zioen, ez genuela galdu soilik jakintsu ospetsua, gure arraza hainbat ohoratzen zuen esploratzaile ausart eta balientea, baizik eta batez ere euskara eta euskal tradizioak mantentzearen bere ahalegin guztiak eta bi egin zituen euskaldun eskuzabal eta argiz betea¹⁶².

Euskal Herriak, *Société d'Ethographie nationale et d'Art populaire* delakoa bitarteko, omenaldi handi bat eskaini zion Donibane Lohizunen urte bereko abuztuaren 15etik 22ra. Parte hartu zuten jakintsuen lanak *La Tradition au Pays Basque* liburuan bildu ziren¹⁶³, eta bertan aurki daitezke Charles Petitek Abbadiaren bizitzaz eta lanez ematen dituen berriak. Dioenez honen irudia Abbadia jauregian zurean idatziaz errefrau zahar hauetan bil daiteke: *zunbat iduri izan haboro (plus estre que paroistre), eta Lanean zoriona (In labore felicitas)*¹⁶⁴.

Anton Abbadiaren alarguna Virginie Vincent de Saint Bonnet anderearen zuzendaritzapean, honek bere senarraren gogoari jarraiki nahi izan baitzion, Bizkaiko Billaron ospatu ziren Irailaren 8an, eta bertan izan ziren festen berri eman zuten bai Donostiako *Euskal Erria*¹⁶⁵ bai Bilbon Azkuek sorturiko *Euskalzale*¹⁶⁶ aldizkariak. Hemezortzi lan aurkeztu ziren eta lehen saria Frantzisko Lopez Aleni eman zitzaion *Oroitz bat Antoine Abbadien obian* poemagatik. Bertako bostgarren bertsoak honela zioen:

*Bai!... Abbadie! Zuregatikan
Nola oroituko ez gera!
Euskal-errian zure izena
Sekulan galduko ez da! (400-V)*

Amai dezadan kronika antzeko hurbiltze saio hau. Ondoren emango dugun lauhun poemaren eta kanten bilduma sakonki aztertzeak hau ez den beste liburua eskatuko luke. Hamaika gai (pilota, emigrazioa, laborantza, emazte edalea, herriko besta, euskaldunen gauzik maiteena, Euskal Herriaren batasuna, Euskal Herriko historia, Madalena Larralde....) eta hauei buruzko hamaika gogoeta berezi, ehun eta hogeita hamazazpi bertsomolde ezberdin (13AAAA moldean %tik 17,75; 13AABB moldean %tik 8,75; 4x{10-8a} %tik 5,1; 4x{7-6a} %tik 5a etabar), irudi zenbatuezin, metafora xarmant eta zoragarriak, hizkuntza eta euskalkien xehetasun kilikagarriak tesi bat baino gehiagorako aukera ematen dute. Gure helburua, ordea, bestelakoa izan da, Abbadiaren ahalegina euskal literaturaren pizkundean aurkeztea

161. "Le pays basque vient de perdre un de ses plus illustres enfants, Antoine d'Abbadie. Il aimait avec passion tout ce qui se rapportait à l'Euskal-Herria et faisait chaque année d'importants sacrifices pour maintenir dans leur pureté traditionnelle la langue, les moeurs, les jeux et les races d'animaux [...]"

Le corps a été transporté aujourd'hui à la gare d'Orléans et de là dirigé sur Hendaye, puis sur le château d'Abbadia (Basses-Pyrénées), où aura lieu l'inhumation" (*Le Courrier de Bayonne*, 1897-III-23)

162. "En le perdant, nous ne perdons pas seulement le savant éminent, l'explorateur courageux et hardi qui faisait tant d'honneur à notre race, nous pleurons encore et surtout le Basque généreux et éclairé qui a tant fait pour le maintien de notre langue et de nos traditions..." , *Eskualduna*, Baiona, 1897-III-26.

163. *La Tradition au Pays basque. Ethnographie, Folk-lore, Art-populaire, Histoire, Hagiographie*. 1899. Berredizioa: Elkar, Donostia, 1982.

164. Charles Petit, "Antoine d'Abbadie", aip. lib., 539-560.

165. "Fiestas éuskaras en Villaro", *Euskal Erria*, 1897, XXXVII, 149, 266.

166. "Euskal iaialdiak Villaro-n", *Euskalzale*, 1897-I, 289.

eta beraz hizkuntzaren, kulturaren eta Euskal Herriaren iraupenean izan zuen parte handia, eredugarri bilakatuz euskal erakundeentzat.

Mila zortzirehun eta laurogeita hamazazpian hil zitzaigun Anton Abbadia, *euskaldunen aita*, garaikideek izendatzen zuten bezala, tamalez iritsi ez zena zazpigarren probintziara hedatzea Koplarien guduak. Hau da, Arabara, baina hori lortu zuena bere alarguna izan zen eta 1899an Aramaionan ospatu ziren¹⁶⁷. Senarraren amets hura “Zazpiak bat” egia bilakaturik zen.

Politikoki ehun urteren buruan oraindik gauzaturik ikusi ez arren, euskarak bizirik dirau tinko eta inoiz urratu ez zituen alorrak ontzen. Zazpi probintzietan aspaldian izan zuen baino indar gehiagorekin irmo eta Abbadiaren heriotzaren mendeurrenean, 1997ko irailaren 28an Sarako herrian euskal lore jokoak izan zituzten 43 herrietako auzapezen bilkura izango da Euskaltzaindia eta Eusko Ikaskuntzaren babesean, hitz larriz eta kantuz ospatzeko ozenki Anton Abbadiaren oroitza. Poesia eta bakea izan daitezela, beraz, bide eragile egunen batean euskaldun anai guztiek gogoia alai eta kantuz ospa dezagun benetazko *Zazpiak Bat*.

Patri Urkizu

167. Patxi Salaberri, “Euskal Jaiak Aramaion (1899)”, *Karmel*, 1995-1/2; 331-345.

KRONOLOGIA

1851 URRUÑA

- 1 Joanes OXALDE, *Kantu berriak Urruñeko pilota partidaren sujeten ginean emanak.*

1852 URRUÑA

- 2 Martin HALSOUET, "Ttipi urruñarra", *Ohore Napoleoni*
- 3 Joanes OXALDE, *Biba Luis Napoleon!*
- 4 Martin HALSOUET, *Monsieur Dabadie*
- 5 An., *Murde d'Abbadia handia*

1853 URRUÑA

Gaia: *Montevideora dihoan euskal gaztearen bihotz-minak.*

- 6 Bernard CELHABE, bardoztarra, *Entzunik espantutan Indien berria.*(Lehen saria)
- 7 LANDERRETXE, garaztarra, *Nahi nuen kantatu* (Bigarren saria)
- 8 Gratien ADEMA, "Zalduby", *Ameriketako bidean*
- 9 Martin EGUIATEGUY, *Eskualdun baten bihotzminak Montevideorat juanez*
- 10 Martin HALSOUET, *Montebideoren aipu handiak*
- 11 Juan SATRALI, *Gizon baten bihotz-minak Muntobidorat juanik*
- 12 Pierre TOPET ETCHAHUN, *Montebidorat jauliak.*

1854 URRUÑA

Gaia: *Ohore Laborantzari*

- 13 DUSSAUT "bardoztarra", *Laboraria.*(Lehen saria)
- 14 Gratien ADEMA, *Ohore laborantzari*
- 15 Martin ARRUPE, urruñarra, *Beha dezagun ongi*
- 16 Bernard BORDA, bastidarra, *Nere xaramelari.*

1855 URRUÑA

Gaia: *Emazte edalea*

- 17 Leon ELISSAMBURU, *Emazte edalea.*(Lehen saria)
- 18 Martin ARRUPE, urruñarra, *Alde guzietarik berri txarrak*
- 19 Martin ARRUPE, urruñarra, *Begia ilun eta sabeletikan min*
- 20 Filipe BORTHIRI, Onizepekoa, *Mundia nola beitu ekhiak argitzen*
- 21 Beñat DORBE, *Mundu hunetan hanitz emaztek*
- 22 François EYHERABURU, urruñarra, *Eskual herrietan zombait emazteki...*
- 23 Arnaud HARAMBOURE, ziburutarra, *Zenbeit hitz orai ditut*
- 24 Arnaud HARAMBOURE, ziburutarra, *Zer zorigaitza*
- 25 Bruno HARDOY, urkhouraitarra, *Emazte edaliak*
- 26 Jean Martin HIRIBARREN "Laurent DAGUERRE, bardoztarra", *Eman nahiz higuintza*
- 27 Jean Martin HIRIBARREN "Leon DAJAS, bardoztarra", *Emazte edaliak*
- 28 M. OLHAGARAY, larresoroarra, *Eskaldunei*

1856 URRUÑAGaia: *Herriko Besta*

- 29 Jean Baptiste LARRALDE, *Herriko besta* (Lehen saria)
 30 Martin ARRUPE, urruñarra, *Alegera gaitezen...*
 31 Salvat DAGUERRE, *Khantore berri batzu nahi tut ...*
 32 Leon ELISSAMBURU, *Bozkario handi bat bada*
 33 Arnaud HARAMBOURE, Ziburukoa, *Huna nun tugun noizbeit bestako egunak.*
 34 Jean-Martin HIRIBARREN, *Urthe guziz eskaldunek...*
 35 Jean-Martin HIRIBARREN "Gaztañalde", *Errexinoleta kantan...*
 36 Jean-Martin HIRIBARREN, *Altxa, muthil ederrak...*
 37 Jean IRIBARNEGARAY, "Xetre", Hazparnekkoa, *Anhitz phesta badugu Eskal herrietan...*
 38 Gabriel LAMARQUE, Heletakoa, *Ethorri zaiku beraz...*
 39 Paul LOUIS, Baionakoa, *Neurri maitenez hatsa ...*
 40 Alexander MEABE, *Egia klar hunen irakhasterat...*
 41 ONTZAKOZALE, *Egun eder, egun handia...*
 42 "ÇUBEROUTARRA", *Egun zerk uskalduna du alageratzen...*
 43 An., laborari semea, *Zonbait pertsuren erraitera...*

1857 URRUÑA

- 44 Louis ITHURBIDE, *Eskualdun baten auhenak* (Lehen saria)
 45 Bethiri SEILHARUX, *Zure begiek egun zer duten...*

1858 URRUÑA

- 46 Jean Baptiste ELISSAMBURU, *Tan, tantan, rataplan* (Lehen saria)
 47 Jean HIRIART, *Ferietako gozoak* (Bigarren saria)
 48 M. BALUYAN, *Oraiko neskatxen moduba* (Hirugarren saria)
 49 Martin ARRUPE, *Aditzea bera...* (Aipamena)
 50 Jean DUVOISIN "Oihancelhay", *Babiloniako uren bazterrean* (Aipamena)
 51 Jean DUVOISIN "Gazteluberri", *Erramu eta Haritz* (Aipamena)
 52 Bernard E., *Erregina bedi Enperadorea...* (Aipamena)
 53 Leon ELISSAMBURU, *Gure andreak dena Krenolin* (Aipamena)
 54 Leon ELISSAMBURU, *Rusiako gerla* (Aipamena)
 55 ETCHEBARNE, *Ameriketarako partiada* (Aipamena)
 56 Agustin ETCHEBERRI, *Frantzia eta enperadorea* (Aipamena)
 57 Arnaud HARAMBOURE, *Makilari* (Aipamena)
 58 Pierre HARANEDER, *Urthe hanitz, oraino ez dela...* (Aipamena)
 59 Jean-Martin HIRIBARREN, "Heuty", *Belzunzek Abarkari...* (Aipamena)
 60 Piarres MENDI, *Maitiari* (Aipamena)
 61 Joseph PALASSIE, "Cambo", *Montevidoko eskaldunen dolamenak.* (Aipamena)
 62 An., *O Gernikako haritz* (Aipamena)
 63 Martin ARRUPE, *Aberatsa zenbat den estimagarria...*
 64 Antoine CHOPERENA, *Ostatu on bat*
 65 ERMITTAUA, *Dugun herria ohora...*
 66 ETCHEBEHERE, *laphurtarra, Erromesa*
 67 ETCHEBEHERE, *Aberatsa...*
 68 Joanes ETCHETO "Senpereko maisua", *Bai behar dut mintzatu...*
 69 Martin GUILBEAU, *Bihotz karlista baten auhenak*

- 70 Arnaud HARAMBOURE, *Eskaldunen laudorioen gainean*
71 Dominika HIRIBARREN, "Sara", *Kantu berri paratzen...*
72 Jean-Martin HIRIBARREN, *1643. Muñosek Baiona Espainari saltzen.*
73 Jean-Martin HIRIBARREN "LAPHEIRE", *Makila*
74 L.D. INDIANOTEGUI, *Eskualduna*
75 Jean Baptiste LARRALDE, *Eskualduna*
76 Alexander MEABE, *Erromanoak Euskaldunen gudan*
77 Jose de VERA "Ezkerra", *Justizia eta egia inork ez nai lurrean...*
78 An., *Baigorriko herri gaixua...*
79 An., *Moldez segi ahal baneza...*

1859 URRUÑA

- 80 Jean Baptiste LARRALDE, *Ama haurren sehaskan lohakartzen.* (Lehen Saria)
81 Jean GOROSTARSOU "G. HAROZTEGUI", *Etzeko xokoa...*(Bigarren saria)
82 Martin GUILBEAU, *Eskaldun desterratua...*(Hirugarren saria)
83 Pierre MENDIBIL, *Artzain dohatsua...* (Laugarren saria)
84 DETCHEPARESTOU, *Gizon gazte baten azken kantua* (Aipamena)
85 Gratien ADEMA "Inazio HARAMBELTZ", "Hazparne", *Zenbat hitzuntzi.* (Aipamena)
86 Gratien ADEMA "Joanes HERGARAY", "Hazpanekoa", *Pilotaria gaztea...* (Aipamena)
87 LGC, *Huna ni gerlaria,* (Aipamena)
88 MENDIBOURE "Laphurtarra", *Diru banu...* (Aipamena)
89 Joanes OXALDE, Italiako gerla: *Italiako gerla berriaren gainean..* (Aipamena)
90 Joanes OXALDE, *Espainol baten tratua* (Aipamena)
91 Betiri ARBELONDE, *Goazin edatera...*
92 Martin ARRUPE, *Eskaldunen laudioak*
93 DEMARQUE semea, *Madalena*
94 Joanes ETCHETO, *Sortzez eskualduna naiz eta*
95 Joanes ETCHETO, *Enperadoria*
96 Joanes ETCHETO, *Dantzaren sujetera*
97 Joanes ETCHETO, *Izatu naiz Amikozen*
98 Joanes ETCHETO, *Urak eta gure arnuak*
99 Joanes ETCHETO, *Frantses gerlariak*
100 Joanes ETCHETO, *Sebastopolgo gerla*
101 Joanes ETCHETO, *Turra asto gainean*
102 Victor ELIÇAGARAY, *Langilea,*
103 Martin GUILBEAU, *Urzo gazte baten lehen egalda*
104 Martin GUILBEAU, *Lagun baten berexkuntza...*
105 Martin GUILBEAU, *Marinelaren joan etorriak.*
106 Jean Martin HIRIBARREN "Heuty", *Heren-suguea (1407)...*
107 Johanes IGUZQUIBELHAR, *Eiherazainaren zaldia*
108 Jean Baptiste LARRALDE, *Amatxi xahar batek...*
109 Jean Baptiste LARRALDE, *Jose Mari Ezkerraren laudioak...*
110 LARROULET PASCOT, *Heskualdunen beheiti lerratzea*
111 J. SAUBABER, *Ume eskergabea*
112 J. SAUBABER, *Solferinoko bataila*
113 Marider UTHURRALT, *Eguberri...*
114 Marider UTHURRALT, *Haur bat...*

1860 URRUÑA

- 115 Jean Baptiste ELISSAMBURU, *Gazte hiltzerat dohana* (Lehen saria)
 116 Jean DUVOISIN "T.ELISSALDE, ainhoarra", *Soldadogoaik Eskual herrirat...*(Bigarren saria)
 117 Leon ELISSAMBURU, *Dantzaria* (Aipamena)
 118 ALZUGARAY"Uztaritzekoa", *Alegia. Mende eder batean...*
 119 Martin ARRUPE, *Ontza urreari ...*
 120 Martin ARRUPE, *Gizon abariziosa*
 121 Martin ARRUPE, *Pena handi bat Eskual herrian...*
 122 AZKONZABAL, *Gaizki hurrenduko naiz, zerengatik?*
 123 BARNEX, *atharratzekoa, Zazpinoen gehienak.*
 124 BARNEX, *Gerlaren has-aintzinekoak*
 125 BARNEX, *Zunbat prinzipaletan eta baionetan gainen*
 126 BARNEX, *Louis Napoleon famatia...*
 127 Baptiste CURET, *Donibane Lohizunekoa*, *Bizio baten gainean...*
 128 DARRICART, *Beraskoitzekoa, Hetika*
 129 De BERON, *Gazte eta hil behar.*
 130 Dominique DEMARQUE, *Andre Philomena*
 131 Leon ELISSAMBURU, *Ama dolorezkoa...*
 132 ERRECARTE, *Arrantzailea*
 133 ERRECARTHARRI, *Amets...*
 134 Joanes ETCHETO, *Haur ongi prestua*
 135 Joanes ETCHETO, *Errient naiz lezione emailia*
 136 Joanes ETCHETO, *Biarritze...*
 137 Joanes ETCHETO, *Oi, ene semea...*
 138 Joanes ETCHETO, *Familia inperiala*
 139 Jean GOROSTARSOU "Duhalde", *Mendiak bethe hedoeiz...*
 140 Jean Martin HIRIBARREN "Menditarrak", *Petxe batek nahi du*
 141 Jean Martin HIRIBARREN "Heuty", *Eugenia...*
 142 Jean Baptiste LARRALDE, *Xori ohatzea...*
 143 Jean Baptiste LARRALDE, *Gizon sobrea eta edalea predikuan*
 144 Jean Baptiste LARRALDE, *Itsasoa miriku*
 145 MUGARITZ, *Primadera.*
 146 Johan OXANDABARATZ, *Iragan denboren mina*
 147 An., *Menditarra*

1861

Hutsik

1862 URRUÑA

- 148 Jean Baptiste ELISSAMBURU, *Apexa eta Lorea* (Lehen saria)
 149 LAPHITZ, *Oderik, edo Aita-Sainduaren Soldadoa* (Lehen Aipamena)
 150 GARRO, *Kriketa eta Pobre* (Bigarren Aipamena)
 151 Jean Baptiste ELISSAMBURU, *Nere etxea* (Aipamena)
 152 Jean Martin HIRIBARREN "Salataria", *Herriko Biltzarraren gainean* (Aipamena)
 153 Jean Baptiste LARRALDE, *Bioleta* (Aipamena)
 154 An., *Pilotariak*

1863 URRUÑA

- 155 Bethiri OLHONDO, *Marinela* (Lehen saria)
156 Jean Baptiste LARRALDE, *Xoriñoa kaiolan* (Lehen Aipamena)
157 Jean Martin HIRIBARREN, *Adiskide min baten orhoitzapenak* (Aipamena)
158 An., *Montebideora phartitza* (Aipamena)
159 Baptiste CURET, *Haur atzeman baten gainean*
160 DARRIGOL, *Heskualdun gaztia soldado johan*
161 Martin GUILBEAU, *Nere maiterena*
162 Martin GUILBEAU, *Adios, nere maitea*
163 Jean Baptiste LARRALDE, *Lana*

1864 SARA

- 164 Jean Baptiste LARRALDE, *Muthil-zaharra* (Lehen saria)
165 M. A. SALABERRI, *Solferinoko itsua* (Bigarren saria)
166 Jean-Martin HIRIBARREN "Menditarra", *Ganetchiki ikhazkina eta Kattalin maingua*
(Lehen Aipamena)
167 Jean Martin HIRIBARREN, *Hauzilaria* (Aipamena)
168 PIERRESTEGUY, *Adiskideekin Bazkal-Artean* (Aipamena)
169 ZOHIOLA berri, *Hiriarten lehenbiziko garaizia* (Aipamena)
170 An., *Burdin-bidea* (Aipamena)
171 Martin ARRUPE, *Xoxo mokho beltza*
172 Jean DUVOISIN, *Stabat mater*
173 ETCHEPARE, *Nigarra dudala bihotzetik*
174 Joanes ETCHETO, *Jaun andre gaien arteko dialoga...*
175 Joanes ETCHETO, *Lillura banaiteke*
176 Joanes ETCHETO, *Munduko biltzarra jeneralaren gainean*
177 Joanes ETCHETO, *Ohorea eta opulantzia*
178 Joanes ETCHETO, *Gizon zaharra eta bere makhila*
179 Joanes ETCHETO, *Ezkontzeko hitzaren gainean*
180 JAUREGUIZAHAR d'Arbouet, *Amerikarat partitzen direnen zori-gaitza*
181 LANDEZTOY "Donapaleuko xantrea", *Makila*
182 Jean Baptiste LARRALDE, *Ene sehia Guerechaniño*
183 Migeltxo UALDE, *Berritan eskondu mariñelaren adioak bere andreaki*

1865 SARA

- 184 Jean Baptiste LARRALDE, *Eria ezagutzaz bethea errexinoletarentzat* (Ohorezko saria)
185 Joanes BERJES, *Artzaingoa* (Lehen saria)
186 Joanes ETCHETO, *Arrosaren kantua* (Aipamena)
187 An., *Saratarra, Primadera* (Aipamena)
188 J. DAVID, *Ezpeletarra, Putxurdiña*

1866 SARA

- 189 Jean Baptiste ELISSAMBURU "Laphurtarra", *Okhertuak bere okhertzaileari* (Ohorezko Saria)
190 Jean Baptiste ELISSAMBURU, *Maria* (Lehen saria)
191 J. MENDIBURU, *Amerikak* (Bigarren saria)

- 192 Martin ARRUPE, *Gizon gazte soldado zortean erorien animoa.* (Aipamena)
 193 Joanes BERJES, *Laboraria.* (Aipamena)
 194 Auguste ETCHEVERRY, *Anddere xakhurra* (Aipamena)
 195 Auguste ETCHEVERRY, *Gizon gazte eskualduna*
 196 Auguste ETCHEVERRY, *Pobria*
 197 Auguste ETCHEVERRY, *Urguiluaz*
 198 Auguste ETCHEVERRY, *Xirliska eta xinaurria*
 199 Joanes ETCHETO, *Gizon gazte ezkondu nahia*
 200 Joanes ETCHETO, *Soldado ona,*
 201 An., Gipuzkoarra, *Amerikatik etorrera.*

1867 SARA

- 202 Joanes BERJES, *Oraiko neskatxa batzu* (Lehen saria)
 203 Jean Baptiste ELISSAMBURU, *Eskalduna* (Bigarren saria)
 204 Gratien ADEMA (Harambelts), *Amaxo*
 205 Gratien ADEMA, *Xanxundegiko xakhurra*

1868 SARA

- 206 Joanes OXALDE, *Enperatrizari* (Lehen saria)
 207 Joanes BERJES, *Andre alferren eta zuhurren gainean.*
 208 Joanes ETCHETO, *Neskatxa pobrearen gainean*
 209 Joanes ETCHETO, *Amoinaren gainean*
 210 Agustin ETCHEVERRY, *Haurra hobi hegian*
 211 Agustin ETCHEVERRY, *Etxeko andrea*
 212 GOYETCHE saratarra, *Tratulariz eta ostelerez.*
 213 Jean LANDART, *Garibaldi*

1869 SARA

- 214 Augustin ETCHEVERRY, *Hiltzera dohan haur baten auhenak* (Lehen saria)
 215 Edmond GUIBERT (Ezpeletar batek), *Sarako andregeia* (Ohorezko aipamena)
 216 Gratien ADEMA, *Ez du sosak egiten zinezko gizona.*
 217 Jean Baptiste DARRICARRERE, *Lot lanari*
 218 GOYETCHE saratarra, *Gizonaren biziaz*
 219 Piarres IBARRART, *Kantuak Larrungo mendiari*

1870 Ez da gerra dela eta Koplarien Gudurik**1871 SARA**

- 220 Jean Baptiste ELISSAMBURU, *Xori berriketaria.* (Lehen saria)
 221 Gratien ADEMA "Zalduby", *Jeus*
 222 Joanes BERJES, *Gerla*
 223 Joanes BERJES, *Loreak eder dira*
 224 Jean IRIBARNEGARAY "Xetre Hazpandarra", *Galde onari prest*
 225 Michel ETCHEGARAY, *Ene lore ederra.*
 226 Jean ETCHENIC, *Hiritarrak eta baserritarrak.*

- 227 Joanes ETCHETO, *Dialogoa eliza xoria eta urzoaren artean*
228 Joanes ETCHETO, *Soldado mobila*
229 HARRIET, *1870an soldadu...*
230 Piarres IBARRART, *Soldado ondoa.*
231 Joakin IRIZAR, *Dolores*
232 Joakin IRIZAR, *Dantzari zarra.*
233 Joakin IRIZAR, *Apaiz aixkidia.*
234 Joakin IRIZAR, *Organista ta gaztia.*
235 An., "Ainhoarra", *Soldado zaharra*
236 An., "Amotztar bat", *Soldado naiz*
237 An., "Bizkaitar bat", *Elixaren garaimena eta bakia.*
238 An., "Eskoaldun mobil bat", *Mobilaren ethortzea.*
239 An., "Eskaldun bat", *Eskalduna*
240 An., "Gipuzkoar bat", *Aita guziz Santu Pio IX-ri.*
241 An., "Gipuzkoar bat", *Jainkoaren letartaren gainean*
242 An., "Gipuzkoar bat", *Ama Birjina sortzez oso garbiari*
243 An., "Itsasuar bat", *Zitioen leiala*
244 An., "Senpentar bat", *Artzain ona*
245 An., *Ganperitz dotor emasabel zapaltzailearen kantuak Montebiderat gatean.*

1872 SARA

Saririk gabe

- 246 Joseph ANXO, *A.M.D. maiteari*
247 BARGARA, *Bertsu berriak*
248 Joanes BERJES, *Bettiri Sants*
249 Joanes ETCHETO, *Biligarroa piaian*
250 Agustin ETCHEVERRY, *Amaizuna*
251 Martin GUILBEAU, *Einadak*
252 Piarres IBARRART, *Gerlako personier bat*
253 Piarres IBARRART, *Itsu bat*

1873 SARA

- 254 Gratien ADEMA "Hergaraya", *Bildotxa eta otsoa* (Lehen saria)
255 Gratien ADEMA, *Belea eta axeria*

1874 SARA

- 256 MAE "Bizkaitarra", *Jaungoikoa eta Erriya* (Lehen saria)
257 Gratien ADEMA "Zalduby", *Bettiri Sants*
258 Agustin ETCHEVERRY, *Kattalin-xume*

1875 SARA

- 259 GOYETCHE, *Ezkila* (Lehen saria)
260 B. CELHAITO, *Ondikozko zoria* (Bigarren Saria)
261 Martin ARRUPE, *Biba Eskal Erriak eta biba gur'antzinekoak*
262 Piarres IBARRART, *Kantari bat.*
263 JAUREGUIBERRI *Artzain zuhurra*

264 An., "Senperetarra", *Uholdearen gainean*.

265 An., *Gizonaren bi janari*

1876 SARA

Saririk gabe.

266 Gratien ADEMA "Piarres Uxaleguy", *Biba Republika!*

267 Martin ARRUPE, *Xorizaina*

268 Pierre ETCHEGOYEN "saratarra", *Ameriketarik*

269 Martin ETCHETO, *Laborantza*

270 Dominika GOYETCHE, *Deklaratzera noha*

271 Jose Maria IPARRAGIRRE, *Nere herriko gazteari*

272 JAUREGUIBERRI, *Laudorioak Jaun d'Abbadieri*

273 LAMOTHE, *Soldadoaren eta desobedientaren dialoga edo arrazoinamendua*

274 Juan URDANPILOT, *Subernoan 1876ko ekainean bapatean kantatu bertsoak*

1877 DONAPALEU

275 Martin ARRUPE, *Xori kaiolatik ihes goan dena* (Lehen saria)

276 Jose Ignazio ARANA, *1212. gurutzearen garaitzapena euskaldunakin Nabasen*
(Aipamena)

1878 SARA

Ez zen lehen saririk eman

277 Joanes OXALDE, *Khilo-egilearen kantuak* (Bigarren saria)

278 Jean DUVOISIN "LARRONDOBERRI", *Artzaina eta bere gasnak*,

279 Martin ARRUPE, *Xori zaintzailia*

280 M. CHANGO, *Aldea eta ifrentzioa*

281 P. DUFOURCQ, *Xinaurria*

282 Agustin ETCHEVERRY, *Larrungo mendia*

283 Agustin ETCHEVERRY, *Hartza eta kakamarloa*.

284 Piarres IBARRART, *Xinaurria eta xoria*

1879 ELIZONDO

Gaia: *Euskaldunen gauzik maitena*

285 Felipe ARRESE BEITIA, *Ama Euskeriari Azken Agurrak* (Lehen saria)

286 Ramon ARTOLA, *Altabizkarko kantua* (Bigarren saria)

287 Martin ARRUPE, *Adios, Amerikari* (Lehen Aipamena)

288 Jose Maria IPARRAGIRRE, *Nafarroako alkarkidari* (Ohorezko Aipamena)

289 An., *Jaungoikoa Bera bakarrik da andi*. (Bigarren Aipamena)

290 An., *Euskaldunen gauzik maitena*

1880 MAULE

291 Felipe ARRESE BEITIA, *Bizi da ama euskera* (Lehen saria)

292 Joanes OXALDE, *Beranteko urrikiak* (Bigarren saria)

293 An., *Altabizkarko khantoria*

1881 IRUN

Gaia: *Euskal Herriaren batasuna, librea*

- 294 Biktoriano IRAOLA, *Lore igartua* (Lehen saria)
295 Antonio ARZAK, *Iltzen bazaigu Ama Euskera Euskaldunak illak gera* (Urreantzeko domina)
296 Felipe ARRESE BEITIA, *Jaungoikoa eta Fuegoak*.(Ohorezko aipamena eta domina)
297 Klaudio OTAEGI, *Elkar gaitetzen denok napar-euskaldunok* (Zilarrezko domina)

1882 SARA

Gaia: *Librea*

- 298 Piarres IBARRART, *Ikhazkin mendian* (Lehen saria)
299 Bonifazio ETXEGARAI, *Azuzenak*
300 Klaudio OTAEGI, *Euskaldun baten arrenkurak*
301 Beñat DORBE, *Sokorriko mendiko Birjinari*

1883 MARKINA

Gaia: *Librea*

- 302 Karmelo ETXEGARAI, *Zertako* (Lehen saria)
303 Felipe ARRESE BEITIA, *Jaungoikoaren probidentzia* (Urrezko arrosa)
304 Antonio ARZAK, *Euskal-erriko perlak*
305 Karmelo ETXEGARAI, *Euskerazko ipui jator berriak: I Azeria eta zakurra, II Asto alperra minez; III Zakurra eta euliyá; IV Astoa eta tximuba; V Azeriya zakur jantziyan; VI Zaldiya, gizona eta astoa, VII Gabirabaren eiza; VIII Azariya eta azari zakurra; IX Oiloak eta arrautzak; X Ardiyak eta legoia.*
306 Martin Hazpandarra, *Eskuara eta Eskual herria maitha*
307 Klaudio OTAEGI, *Markinako euskal-pestai diosala*
308 Joanes OXALDE, *Kantu berriak burdin bidearen gainean*
309 Karmelo ETXEGARAI, *Markinara*

1884 SARA

- 310 Piarres IBARRART, *Uso saretan atzemana* (Lehen saria)
311 GAETAN, *Andere Luziari*
312 HARAMBOURE Ziburukoa, *Gizon buriophetsu eta sineste gabe baten bizia eta herihotzea, haren itzak pertsutan emanak.*

1885 SARA

Lehen saria hutsik

- 313 Agustin ETCHEVERRY, *Maria Alegiazkoa*
314 HARAMBOURE, *Ume-xurtx erromes baten auhenak*
315 Piarres IBARRART, *Mendigaineko Mariaren konfesioa Baigorriko txantreari*
316 Manex HARGINAK "Donapaleun", *Nere leihotik*
317 Martin OREGIZ, Oragartarra, *Alharguntsak haurra lokhartzen*
318 An., *Frantziaren bandera ederra*

- 319 An., *Adio*
 320 An., *Bizio bat herrietan da*

1886 URNIETA

- 321 Karmelo ETXEGARAI, *Menditar baten kantua* (Lehen saria)
 322 Juan Jose ALKAIN, *usurbildarra, Biba San Migel!*
 323 Juan Jose ALKAIN, *Bizi bedi Jesus ta ill pekatua!*
 324 Joxe AMEZTOI, *Aphezak aurrari*
 325 Jose ARTOLA, *Patxiku Pilart eta Juan Jose Palart*
 326 Agustin ETCHEVERRY, *Laboraria eta haren semeak*
 327 Piarres IBARRART, *Betiri Itsasukoaren balentria*
 328 Juan Migel ORKOLAGA, *Ama Euskal Erriari*
 329 Indalezio SARASKETA, *Eibarko txikiya*
 330 J.T.D.L Azkaindarra, *Artzain baten bizia*
 331 Karmelo ETXEGARAI, *Abbadia jauna! zuri...*

1887 AZKAINA

- 332 Jose ARTOLA, *Erb-inudea eta katua* (Lehen saria)
 333 Gratien ADEMA, *Beharra eta ahala* (Ohorezko aipamena)
 334 Gratien ADEMA "OLHARREPE", *Mihizlariak*
 335 Martin ARRUPE, *Haur kausitua*
 336 J.E. "Azkainen", *Euskaldun eri baten kantuak*

1888 KANBO

Lehen saria hutsik

- 337 Karmelo ETXEGARAI, *Txistulari gaisoa*
 338 Gregoire HIRIGOYEN, Urruñan, *Alharguntsa zonbaiten dolua*
 339 Piarres IBARRART, *Pilatus hiritarra*
 340 Frantzisko LOPEZ ALEN, *Habanara*

1889 DONEZTEBE

- 341 Klaudio OTAEGI, *Amerikatik* (Lehen saria)
 342 Ramon ARTOLA, *Eguzkiyaren sarrera.*(Ohorezko aipamena)

1890 MAULE

- 343 Felipe CASAL, *Gure euskara maita dezagun* (Lehen saria)
 344 Jose ARTOLA, *Vanitas vanitatum*
 345 Bizente ETCHEGARAY, Urruña, *Montebideoz egin zenean*
 346 Piarres IBARRART, *Bildots ait´amez gabetua*
 347 Joanes OXALDE, *Lurreko ene bizia*
 348 Joanes OXALDE, *Etchahun barkoxtarrak eta Oxalde bidarraitarrak elgar errekontratu zirenean eman zituzten kantuak: Agur adiskidea...*
 349 Adrien & Jean SOUHY, *Hunki jin, Mus de Abbadia*
 350 An., *Kalabaza eta baratzuriya*

1891 IURRETA

- 351 Frantzisko LOPEZ ALEN, *Duvoisin jaunaren oroimengarriari* (Lehen saria)
352 Frantzisko LOPEZ ALEN, *Maitexoren eriotza*.(Bigarren saria)
353 Felipe ARRESE BEITIA, *Biargiñ alegere bat* (Ohorezko lehen saria)
354 Biktoriano IRAOLA, *Pero Mari biursari gozotsua* (Ohorezko bigarren saria)
355 G. BERDEKO, *Gernikako arboliaeren laudoriotan*
356 Balbino GARITAONAINDIA, *Jesus-en Biotzari kantia*
357 A. RADOY, *Gau berean sorthu bi haurrer*
358 Juan Ignazio URANGA, *Ipui berriyak*
359 An., *Ama euskarari akrostikoa: Zazpiak beti bat.*
360 An., *Amets bat*
361 An., *Antza*
362 An., *Aritz Gureari*
363 An., *Asto alperra*
364 An., *Ekatzute saria*
365 An., *Euskaldunen Loriak*
366 An., *Nere Mendiyak*
367 An., *Nere sentimenduak*
368 An., *Izkiñozua eta Zozua guduya Euskaragatik*
369 An., *Zargoriya*

1892 DONIBANE LOHIZUNE

Gaia: *Librea*

- 370 Bitoriano IRAOLA, *Gaisuak!* (Lehen saria)
371 Piarres IBARRART, *Itsua eta sastrea* (Bigarren saria)
372 URRUTIGOITY, *Egun hun Mus de Abbadie*
373 Adrien de SOUHY, *Ziberuak Laphurdiri*

1893 AZPEITIA

- 374 Frantzisko LOPEZ ALEN, *Ama baten otsa seaskaren ondoan* (Lehen saria)
375 Felipe CASAL, *Ama euskara eta bere umiak* (Bigarren saria)
376 Gratién ADEMA, *Gauden eskualdun*
377 An., *Bizi bitez euskera ta euskaldunak*

1894 DONIBANE GARAZI

Gaia: *Madalena Larralde Sarako martiraren istorioa*

- 378 Laurent DIHARASARRY, Ortzaizekoa & DAGUERRE Irisarrikoa, *Sarako Martira Madalena Larralde*
379 Joanes OXALDE, *Madalen Larralde*
380 DUHALDEBEHERE saratarrak, *Madalen Larralde,*
381 Pierre ERGUYde Lasse, *Madalen Sarako martiraren kantia*
382 Jean ERRAMOUSPE "Bankakoa", *Etsenplu ederrek...*
383 Manex ETCEHEMENDI Ezterenzubikoa, *Gezur bat erran baino billotinatua nahiago*
384 HARAMBOURE, Ziburuko xantrea, *Madalen Larralde Sarako martiraren pertzuak*
385 Jean IRIBARNEGARAY "Xetre hazpandarra", *Madalen Larralde*
386 An."Lapurtar bat", *Sarako Larralde Madalenez*

1895 BERA

Gaia: *Magdalena Larralde*

Lehen saria hutsik

- 387 DUHALDEBEHERE, *Madalen Larralde*
 388 Marianna HARGAIN, *Ehun eta zenbait urthe*
 389 Piarres IBARRART, *Madalen Sarako Martira*
 390 Frantzisko SANTISTEBAN, *1793*
 391 Pedro Mari OTAÑO, *Larraldeko Madalena*
 392 An., *Magdalena Larralde 1793an*
 393 An., *Aingeru maitia!*
 394 An., *Lili gorria*
 395 An., *Magdalena Larralde Sarakoa*

1896 MAULE

Gaia: *Madalen Larralde*

- 396 Laurent DIHARASARRY, *Madalen Larralde saratarra* (Lehen saria)
 397 Felipe ARRESE BEITIA, *Euskaldun martire.*(Bigarren saria)
 398 Frantzisko LOPEZ ALEN, *Larralde-ko Madalenari oroitz bat* (Hirugarren saria)
 399 Hypolite PIE, *Kantore berri batzu*

1897 BILLARO

- 400 Frantzisko LOPEZ ALEN, *Oroitz bat Antoine d'Abbadie-ren obian* (Lehen saria)